



ARGIA



22-27. orriak

'NEXT GENERATION EU' FUNTSAK

Dirutza korporazioei, herritarrei zorra



**Arkitekturak
erantzukizun
politikoa du**

12 | ULA IRURETAGOiena



**Alabak amaren
hizkuntza berrikasi du,
bakarrik senti ez dadin**

38 | BENGALERA



**"Izar Beltzeko
jendeari omenaldia
da liburua"**

44 | ANDONI FERNANDEZ

OPARITU ARGIA

ZAINDU NAHI DUZUN HORRI

Puska dezagun izotza



Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 08 | EKONOMIAREN TALAIAN
- 09 | HUMANITATEAREN UNE GORENAK
- 09 | EZ HANKA EZ BURU

AZALEKO ILUSTRAZIOA:
XABIER SAGASTA

Iritziak

- 17 | ASIERA BLAS MENDOZA
- 18 | BEA SALABERRI
- 19 | ANE LABAKA MAYOZ
- 19 | EDU ZELAIETA ANTA
- 20 | INMA ERREA

SAILLEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK:
CLIPART COURTESY FCIT

Finkoak

- 40 | DENBORAREN MAKINA
- 41 | ARGIA KOMUNITATEA
- 42 | BIZI BARATZEA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARGİ-KONTRA: ANA HORMAETXEA
- 53 | BERANDUEGI



44 | ANDONI FERNÁNDEZ AZKARAI

Bilboko lehen ateneo anarkista izan zen Izar Beltzen historia jaso du Andoni Fernándezek liburuan. Amaia Lekunberrik egin dion elkarrizketan kontatu du punk giroko espazio horrek eman duen guztia, eta hustu ostean non ikusten duen haren hazia.

Elkarrizketak eta erreportajeak

10 | NET HURBIL

Indian, laborarien protesta herritar matxinadaren itxura hartzen ari da egunez egun

Jenofa Berhokoirigoin

12 | PERTSONAIA | ULA IRURETAGOiena

“Arkitekturan ari denak erantzukizun politikoa du, nahitaez”

Miren Artetxe Sarasola

22 | EKONOMIA | NEXT GENERATION UE

Hurrengo belaunaldiei zorretan utziko dieguna

U. Apaolaza / M. Zurbano /
L. Arbelaiz / X. Letona

28 | HEZKUNTZA | IURGI ETXEBARRIA

“Antzerkiaren bidez ikasleak deskubritzen ditu barruan daramatzan beste rol batzuk”

Mikel Garcia Idiakez

32 | NAZIOARTEA

Zer egin ISISeko milaka kide ohiekin?

Aitor Aspuru

35 | GIZARTEA

Etorkinak Irun eta Baiona artean

Jenofa Berhokoirigoin

38 | NAZIOARTEA

“Amak esan zuenean bakarrik zegoela, ulertu nuen berriz ikasi behar nuela bengalera”

Kia Abdullah / The Guardian

Jabetza

Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea

Lehendakaria

Bego Zuza

Erredakzioa

Amaia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Jone Markuleta, Lander Arbelaiz, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Peru Iparragirre, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua

Maitane Gartzandia

Argazkilaria

Dani Blanco

Produkzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarte

Salmenta

Karlos Olasolo, Olatz Korta, Pello Basurto

Idazkaritza

Aloña Sorraluze, Bego Zuza

Web garapena

Asier Iturralde

Informatika

Iametzta interaktiboa, S.L.

Lege gordailua

SS 837-2012

ISSN

0213-909X

Batzorde parekidea

72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoak

komertzial@argia.eus
harpide@argia.eus

Telefonia

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa

Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina
31001 Iruñea

Ametzagaiña taldeko kidea da ARGIA honako enprekin batera:

antza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

iametzta
interaktiboa

ADUR software
productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egile eta aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.



Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuek lizentzia hau ez izatea.



EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN
SAREKO KIDE GARA



ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Jainkoaren graziaz

Egunerokoan bizitzari erreparatzeko dabiltzagan parametroak, normalean, ez dira oso erabilgarriak Israel ulertzeko. Anomalia da bere horretan, sortzez, normaltasunez mozarrotzen badigute ere. Europako kirol txapelketak jokatzeko dituen Asiako herrialde ultraeskuindar hau egunotan txalotu dute batzuek munduan herritar gehien txertatzen ari den herrialdea izateagatik. Jainkoak lur hori juduei bakarrik eman zien, eta orain txertoa. Israelgo Osasun ministro Yuli Edelsteinek BBCri azaldu dio zergatik Israelgo herritarrek duten txertaketan lehentasuna, eta ez palestinarrek: "Zeinek ordaintzen ditu zergak? Gure herritarrek, ezta?". Baina haien asmo ona adierazteko, 5.000 txerto gorde dituzte (bost milioi) palestinarrentzat. Eta txiste txarra borobiltzeko, konfinamendua, debekuak eta txertaketa masiboa oinarri duen gobernu planarekiko oldarkorrenak zein izango eta juduetan juduen eta ordotoxoetan ultrenak. Irudian: milaka emakume etxean gordeta, milaka gizon ultraortodoxo kalera atera dira asteburuan osasun-neurriei muzin eginez Palestinako hiriburu okupatuan. Populazioaren %13 izan arren, COVID-19ak Israelen kutsatuen %40 dira ultraortodoxoak.

ABIR SULTAN AXIER LOPEZ








**EZKER ABERTZALEAREN
ELEMENTUAK DAUDE,
DONOSTIAKO ALDE
ZAHARREAN GERTATU
MODUKO ISTILUAK
AKUILATZEN DITUZTENAK**

Eneko Goia
EL DIARIO VASCO



**HAU DA 20:00ETATIK
DAGOEN JENDE MORDOA
AUZOAN EGITEN DUEN
EGURALDIAREKIN, BERAZ ZE
OSTIA ARI ZARETE GAUR ERE
AUZOA MILITARIZATZEN
@DONOSTIAPNV
@ENEKOGOIA @JERKOREKA?
NORENTZAKO 5 FURGONA,
6 KOTXE, KASKOAK?**

@KaxeruJon



**JOSU ERKOREKAK IZENIK EZ
DU. "TIRAR A DAR" AGINDUA
ONTZAT EMAN ETA ERAGIN
DUTEN KALTEA UKATU.
INPUNITATEA NAGUSI**

@JosebaAlvarez



**JAURLARITZAK BLACK
MIRRORREKO GIDOILARIEI
BARNE SAILAREN ESTRATEGIA
IDAZTEKO EMATEN DIEN
DIRUTZA ZIU-AK MUNTATZEKO
BIDERATU BEHAR DU. POLIZIA
EZ, OSPITALEAK BAI**

@hedoi_etxarte



ZIGOR OLABARRIA OLEAGA

Hamabost pertsona etxetik kaleratu dituzte

 ZIGOR OLABARRIA OLEAGA

Gasteizen, Herrandarren kaleko 15. zenbakiko etxebizitza hutsak 2020ko uztai-lean okupatu zituzten 30 lagunek. Gaur egun hamabost bizi ziren eta poliziak etxetik kaleratu ditu. Operazioan, hogeitik gora pertsona identifikatu dituzte eraikin barnean, bizilagunak edo babesa ematera bertaratutakoak. Liskarrak izan dira eta hiru gazte atxilotu dituzte ertzainek kanpoaldean; etxetik kaleratu dituzten migratzaileetako bi, berriz, Atzerriartasun Bulegora eraman dituzte udaltzainek.

Dozenaka poliziek hartu dute parte kaleratzean. Udaltzaingoak kalea itxi eta dozenaka lagun portalaren aurrean eseri dira harresia eginez; ertzainek banan-banan atera dituzte. Goiz osoan tarteka tentsio uneak eta istiluak izan dira Udaltzaingo eta Ertzaintzaren eta kanpoan elkartu den jendearen artean. Une horietako batean, etxegabetzea ia amaituta zegoela, istiluak piztu dira berriz ere eta Poliziak hiru gazte atxilotu ditu. Eskuburdinak jarrita autoan sartu eta polizia etxera eraman ditu Ertzaintzak.

Behin kaleratzea bukatuta, deia egin diete herritarrei Larrialdietako Zerbitzu Sozialetara jotzeko, kalean utzi dituzten familientzat alternatiba eskatzeko.

BOST FAMILIA "INONGO ALTERNATIBARIK GABE"

Bost familia bizi ziren Herrandarren kaleko etxebizitza okupatuetan, hamabost pertsona, zaurgarritasun egoeran eta haurrak tartean. Gasteizko Etxebizitza Sindikatuak azaldu du etxegabetze agindua jasotzerakoan zerbitzu sozialekin, jabeen abokatuekin zein udaleko "zenbait alderdirekin" jarri zirela harremanetan, familientzako irtenbide bat aurkitu nahian. Momentuz ez dute horrelakorik lortu. "Inongo alternatibarik eskaini gabe, pertsona horiek kale gorrian utzi dituzte", ohartarazi dute.

HUMANITATEAREN UNE GORENAK

Maisu-maistrak



ARITZ GALARRAGA

Antoine Compagnon aipatu, berriki eman duen azken lezioa Collège de France prestigiotsuan, eta, jubilatutako den hone-tan, aitortu beharra dut inspiragarri izan zaidala, ezagu-tza iturri, sarri asko mirail, egiazko maisu. Literaturaz dakidan gutxiaren parte handi bat hari zor diodala, alegia, han-hemenka harrapatu dizkiodan mintzaldiei, artikuluei, liburuei. Pentsa, apalategiak txukundu nituen batean *El demonio de la literatura* saiakeraren hiru ale zenbatzera iritsi nintzen. Eta eduki zehatz batzuez harago: hartu diot egonarrria, munduan ibiltzeko modu bat, laburtuz, Perecen hura, bizitza nola erabili.

Beste maisu batek, Jordi Llovetek, badu liburu bat, hain zuzen *Els mestres* izenekoa, zeinean egiten dien omenaldia pertsona eta intelektual gisa osatzeko erabakigarri izan zaizkion bost maisuri: Miquel Batllori, José Manuel Blecua, Martí de Riquer, José María Valverde eta Antoni Comas. Bostak ere aski diferente, partekatzen dituzte hainbat ezaugarri: batere botere goserik ga-beak, fede izugarria zioten hitz idatziari, eta batez ere lana, lana eta lana egiteko gaitasuna –ni sekula inoren maisu izango ez nai-zenaren proba definitiboa–. Eta, inportanteena, ematen duenez jende diskretua zen, umila, jende ona. Halako maisurik ez dago jada, dio Llovetek. Esango nuke ez dagoela Llovet bezalakorik ere –nik dagoeneko ez nituen ezagutu Bartzelonako Unibertsita-te Autonomoan, nahiz paraleloki Llovetek klaseak ematen zituen oraindik Bartzelonako Unibertsitatean–.

Eta hala ere gogoratzen ditut irakasle batzuk –nola ahaztu, adibidez, 3 bat jarri zidan hura–, gogoratzen dut denborare-kin maisu-maistra bilakatu direnak; eta irakasle izan gabe, are batzuk sekula aurrez aurre izan gabe ere, paper hori, hitzaren zentzu zabalenean, bete dutenak. Ez dut uste lortu dutenik nitaz pertsona bertutetsu eta ilustratu bat egitea. Baina gauzak era-kutsi dizkiote gauza horiek oraindik ez zekizkienari. Eta esango nuke halako zerbait dela irakastea. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA
www.adurlarrea.com



“ERREGIMENA HAZI EGITEN DA ERRESISTENTZIA EZAREN AURREAN”

PABLO HASÉL, RAP ABESLARI KATALANA

Hasél espetxeratzeko agindu dute, Espainiako monarkia iraintzea leporatuta. Hogeitaz urte ere eman ditzake kartzelan. “Ez da nire aurkako eraso soilik, adierazpen askatasunaren aurkakoa bizik. Bat zapaltzen dutenean, besteak izutzeko egiten dute. Terrorismo horrekin euren krimenak eta esplotazio eta miseria politikak salatzea eragotzi nahi dute. Elkartasuna falta izan da nire espetxeratzea saihesteko, beste askorena bezala. Erregimena hazi egiten da erresistentzia ezaren aurrean, eta gero eta eskubide eta askatasun gehiago kentzen dizkigu; autodefentsa antolatze beharra dugu”. **2021/01/29**



Gazteen alde



JUAN MARI ARREGI

Herri batek etorkizun ekonomiko, politiko eta soziala izan dezan, ezinbestekoa da gazteriarren aldeko apustua egitea. Azken urteotako krisi ekonomikoak eta Covid-19aren ondorioek jendarteko funtsezko sektore hori oso ukituta eta kaltetuta utzi dute. Gazteak emantzipazio oso urrun daude eta belaunaldi oso bat galtzeko arriskua dugu.

Euskal Herrian, gazteen enpleguak okerrera egin du nabarmen azken urteotan eta, batez ere, pandemiaren azken hilabeteetan. Eurostaten datu ofizialen arabera, 2020ko lehen sei hilabeteetan Espainiako Estatuan –Hego Euskal Herria barne–, gazteen langabezia-tasa %32tik %43,9ra igo da abuztuan. Frantziako Estatuan –Ipar Euskal Herria barne–, berriz, %18,6tik %22ra igaro da. Eta langabezia gain, gazteek kontratu atipikoak, soldaten dumpinga, prekarietatea, soldata txikiak eta laneko segurtasunik ezak sorturiko abusuak nozitzen dituzte.

Horri, etxebizitza eskuratzeko dituzten zailtasunak gehitzen badizkiogu –alokairua gero eta gehiago garestitzen ari da, %42 igotzera iritsi da–, egoera latza eta ikaragarria da. Adibidez, Espainiako Estatuan egindako hainbat azterlanen arabera, 16-29 urteko gazteen emantzipazioak okerrera egin du 2008 eta 2019 artean: gurasoen etxea utzi dezaketen gazteen proportzioa %33tik %24ra jaitsi da.

Testuinguru horretan, premiazkoa da administrazioek eta gobernuek gazteak lehentasunezko helburuen artean izatea. Ekonomia suspertzeko iragarri dituzten europar funts horien lehentasunezko jomuga izan behar lukete (ikusi 22. orrialdean Next Generation EURI buruzko erreportajea). Enplegu eta soldata duinak eskaini behar zaizkie, baita emantzipatzen lagunduko dien etxebizitza eskuragarriago jarri ere. Gazteriarik gabe ez dago susperraldi ekonomiko, sozial eta politiko posiblearik. Premiazkoa da haren alde egitea! ●

Lehen negutik

ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA

Lehen negua suzko froga izaten ari da ezarri ditugun “anormaltasun berriaren” zimenduentzat. Artikulu hau ez doa PCR, txerto dosi eta positibo kopuruak bezalako gauza kontagarriez, nahiz eta badiren Euskal Herriko pandemiaren kudeatzaile denek batera dimititzeko modukoak.

Hasieratik ohartarazi dute gizarteko sektoreek: osasuna dela landu beharreko baratzia eta ez gaixotasun bat borrokatu beharreko gudu-zelai; osasuna zerbait integrala dela eta ez zehazki birus mota bat ez izatea; esperimentu (a) sozialekin argi ibiltzeko, buru osasuna gogotik zaindu beharreko lore fina baita... Pertsonekin lan egiten dutenak hasi dira esaten, entzun nahi duenarentzat: “Ikasleen artean suizidio joera gora egin ari da”, “umeak triste daude”, “hamar urte zahartu dira azken bolada honetan zaharrak”...

Isolamendua zigorra zen pertsonarentzat, etengabeko bakardadea gaitz sozial moduan ikusi izan dugu... baina orain gero eta pertsona gehiagorentzat desiragarri izatera iristen ari da. Pertsona bakarrak ezin zizkigula behar denak asetu aldarrikatuzetik, gure burbuila ia-ia bikotera murriztera pasatu gara; talde lanean oinarritutako proiektu kolektiboaz harro geunden langileok ia-erabateko telelanari “askatasun” esaten diogu; “aurten ezin da ezer egin” batez utzi diogu herriko urteroko ekintzak antolatzeari... hau da, berdinekiko aurrez aurreko harremanak etetea segurtasun eremu moduan ikusten dugu “arrisku taldetik kanpoko” sasoiko pertsonen. Mugimendu feministarentzat, langile mugimenduentzat eta gainerako gizarte mugimenduentzat galdera eta erronka ederrak dakartza honek.

Aurrez aurreko harremanak asko murriztea eskatzen digu egoerak, noski, baina zenbateraino murriztu? Nolako da pertsonaren buru osasunak behar duen harreman zuzenen sarea? “Bakoitzaren arabera”, noski... ez iazko martxoaz geroztik hartu diren neurriak denak bezala, “denentzako berdin”, bakoitzaren baldintzak erabat ezberdi-



nak izan arren, ezta? Bakoitzak aztertu beharko dugu etengabe gure burua, guztion osasunaren mesedetan: garaiotan ahalik zoriontsuen eta buruz indartsuen egoteko zer behar dauzkagun identifikatu, gertuko harremanekin gogoeta hauek partekatu, harreman horiek sendotuz elkarren beharrak asetzen saiatu... Hori oso da bateragarria pandemia-ri aurre egiteko neurriekin. Izan behar du. Gainerakoan, COVID-19aren hedapena saihesteagatik beste hainbat gaitzen hedapena onartzeko prest gaudela esaten ariko ginateke. Eta hamarraldi batekin pasatzen ez diren gaitzak edo “zoritzarraldi” sakonak dira. Iragarleek badatorrela seinalatzen diguten langabezia eta krisi krakatekorako, harreman sareak sendotzea baino zer neurri seguruagorik daukagu herritarrok?

Ezarri behar diren segurtasun neurri guztiekin, baina bizigarri zaizkigun aurrez aurreko harremanak eta jarduerak berreskuratzeko beharra badugu. Pantaila bidezkoek ez baitituzte aurrez aurrekoak ordezkatzen. Beraz, bizigarri zaizkigun harreman, espazio, jarduera horiek seguruak izan daitezen behar diren baliabide guztiak borrokatu ditzagun guztiontzat. Eta ez ditzagun hutsik utzi. Badaezpada, prebentzioz. ●



D EREDUA LORTU DUTE MENDIGORRIAN

MENDIGORRIA. Herri nafar honetako hurrek urteak daramatzate egunero autobusa hartu eta Gareseko ikastetxera joaten euskaraz ikasi ahal izateko. Gurasoen borroka luzearen ostean, 2021-2022 ikasturterako euskarazko eskaintza izango du azkenean Mendigorriko Julian Maria Espinal Olcoz ikastetxe publikoak. “Urrats garrantzitsua” dela adierazi dute, baina ohartarazi dute “zalantza eta korapilo” asko dagoela oraindik argitzeke.

HONDAKINAK

%85

murritu nahi ditu 2030erako Eusko Jaurlaritzak zabartegira doazen hondakinak. Zehazki, helburu hauek ezarri ditu 2030erako EAEn: %30 murritzeta sortutako hondakin tasa, hiri-hondakinen gaikako bilteta %85koa izatea, hondakin ez-arriskutsuen %85 berrerabiltzea.



Irregularitasunak EAEko txerto jartze prozesuan

ARGIA

Egun batzuk lehenago azaleratuta-ko kasuei beste bat gehitu zitzaion joan den astean, ARGIAk jakinarazi zuenez: Gasteizko Santiago ospitalean ere txertoa hartu behar ez zuten hainbat langilek hartu dute.

GASTEIZKO KASUA


Txertoa hartu behar ez zuten arren txertatuak izan diren profesionalen hiru kasu dira Gasteizko Santiago ospitalean ezagutu direnak gaur gaurkoz: zeladoreen enkargatu bat, endoskopia gainbegirale bat, eta liberatua dagoen UGT sindikatuko kide bat. Aldiz, birusak kutsatutako gaixoei kontaktu zuzenean ari diren hainbat langilek ez dute txertoa hartu oraindik: ZIUko langileren bat, kutsatuekin errehabilitazioa egiten ari diren fisioterapeutak edo hainbat zeladore, besteak beste.

SAGARDUIREN DIMISIOA

Urtarrilaren 28an ezagutarazi genuen goiko kasua ARGIAN. Aurreko egunean, Basurtuko eta Santa Marinako txertaketa irregularren aurrean azalpenak eman behar izan zituen Eusko Legebiltzarrean Gotzone Sagardui Eusko Jaurlaritzako Osasun sailburuak. Haren eta Osakidetza zuzendari Rosa Pérezen dimisioa eskatu du EH Bilduk, “informazioa ezkutatu eta gezurretan aritzeagatik”. Elkarrekin Ahal Duguk ere sailburua “albo bateara” geratu beharko litzatekeela dio.



OSTALARITZA. Bere buruaz beste egin du ostalarien gremioko kide batek, “Kasu, kasu ostalariak kexu” kolektiboak jakinarazi duenez. “Ostalaritzaren itxierak eragiten dituen harreman sozialen moztea eta al-boko kalteak” erakusten dituen gertaera bat dela azpimarratu dute.



PRESOAK. Epe-tarte laburrean espetxetik ospitalera lau aldiz eraman behar izan dute Antton Troitiño kimioterapia jaso dezan, gero espetxera itzularaziz, hiru orduko joan-etorrian. Aske utzi arte kimio-terapiari uko egin dio, tratamendua ez delako bideragarri espetxe-baldintzekin.



OINARRIZKO ERRENTA. Herritarren sinadurak biltzen ari dira, herri ekimena aurkeztu eta Europako Batzordeari eskatzeko proposamena aurkez dezala, baldintzarik gabeko oinarritzko errenta unibertsala Europar Batasun osoan ezartzeko. Besteak beste, pobrezia egin nahi zaio aurre.

INDIAN, LABORARIEN PROTESTA HERRITAR MATXINADAREN ITXURA HARTZEN ARI DA EGUNEZ EGUN

lazko azaroaren 26an ukan genuen Indiako laborarien aldarrikapenaren berri, 250 milioi laborari eta langilek jarraituriko greba historikoari esker: Indiako Parlamentuak bozkaturiko laborantzaren liberalizaziorik ez dute nahi. Egun horretan abiatu zuten New Delhi inguruko kanpamentua 250.000 bat nekazarik, hiribururako zortzi sarrerak blokeatuz. Urtarrilaren 26an, urrats bat gehiago eman eta hiriburuaren bihotzera sartu ziren, otsailaren 1erako parlamentua zutelarik helburu. Determinaturik dira, eta egunez egun, geroz eta herritar gehiago batzen zaizkie.

JENOFA BERTHOKOIRIGOIN

Azaroaz geroztik Indiako hiriburuaren inguruan kanpatzen zebiltzan 250.000 laborariak abisua emana zuten: bai ala bai, New Delhira sartuko ziren urtarrilaren 26an, eta beharrez milaka polizia eta soldaduk osatu hesiaren gainetik pasako ziren.

Errepublikaren eguna dute urtarrilaren 26a indiarrek, 1947an britainiarren kolonialismoarekin bukatutik, 1950eko urtarrileko egun horretan promulgaturiko konstituzioa ospatzeko. Jaieguna dute eta New Delhin egindako desfile militarrekin ospatu ohi dute urteurrenarena.

Aurten ordea, New Delhi gogoz kontra partekatu behar izan zuen Indiako Gobernuak: jaieguna borroka eguna ere izan zen, eta militarren desfileaz gain, ehunka mila laborari eta proletariok gorpuzturiko manifestazioak bete zuen Indiako hiriburua. Poliziaren hesiak gaudituz eta errepresio bortitzari aurre eginez, hiriburuko bihotzera sartu ziren, desfile militarretik hiru kilometro-ra hurbiltzera lortuz. Gotorleku Gorria izeneko monumentu historikoa ordu batzuz okupatzea ere lortu zuten, hots, poliziak bortizki haizatu arte. Baina ez ziren horretan gelditzekoak, eta berehala ondoko hitzorduaren berri eman zuten: otsailaren 1ean parlamentua arte egingo dute martxa, egun horretan dutelako Estatuaren aurrekontua bozkatzeko. Nonbait, AEBetan Washingtingo Kapitolioan ikusi berri dugun irudi historikoa,

baina aldi honetan justizia sozialaren eta oinarritzko eskubideen aldeko aldarriarekin. Pena ez zaiola hein bereko jarraipen mediatikoa eskaintzen Indian gertatzen ari den herri mugimenduari.

Laborantzaren liberalizazioa dakarten hiru lege dituzte jomugan, parlamentariak irailean bozkaturikoak *-Farm Bills* izenez ezagunak direnak-. Horrelakorik ez dute onartzen, badakitelako agroindustriako bakar batzuen onurarako eta nekazarien kalterako izanen direla. "Laborarion heriotza dakarten lege horiek kendu arte hemen geldituko gara" zion parean zituen kazetariei, traktorez 400 kilometro eginak zituen laborariak, orga tipul, irris, dilista ala irinez, baita hotzetik babesteko lastoz ere beterik zuela. Bere gisan, milaka nekazarik zuten bide bera harturik, eta hor dabilta geroztik, sukalde kolektiboak eraikirik, apairuak kitorik banatzen, eta protestaren nondik-norakoak kolektiboki erabakitzen. Aterpeak zein osasun-artak eskaintzen dabilta, sustenguz, inguruko herritar batzuk ere.

Gogorra da negu-giroa errepide bazterretan, eta dagoeneko 70 laborari hotzez hil dira, Bhartiya Kisan sindikatuak salatu duenez. Baina ez dute etxera sartzeko asmorik: "Legeak behin betikoz kendu arte ez dugu amore emanen". Liberalizazioarekin guztia galtzeko arriskua handiegia dute 600 milioi laborariak -hauetarik %86 hektarea bat baino gutxiagorekin bizi da-: prezioak eskain-

tza eta eskaeraren arabera fluktuatzen utziz, bukatua lirateke orain arteko prezio finkoak eta errenta segurtatuak. Azaroaren 26an eta abenduaren 8an greba eguna ukan zuten, 250 milioi laborari zein langile batuz -mundu mailan izandako greba mugimendu jarraituena-. Hein batean, Narendra Modi Lehen ministro autoritarioak du amore eman behar izan: hiru legeak ezeztatzen zituela jakinarazi zuen Auzitegi Gorenak urtarrilaren 12an; ezeztatzeak hemezortzi hilabetez balioko duela zehaztu hortik gutxira; eta azkenik, New Delhira sartzeko debekua ere bertan behera utzi zuen. Atzera pauso hauek erakusten digute mugimenduaren indarra, normalean, herritarren aldarrien parean elkor eta berean tinko segitzeko joera automatikoa duelako Lehen ministro honek.

HERRITARREN SOSTENGUA DUTE

Nahiz eta Modik "terroristatzat" jo, eta Indiako *mainstream* komunikabide handiek irudi hau zabaldu, oraingoz behintzat herritarren babesa eta elkartasuna daukate laborariak. Funtsean, irakasleak, ikasleak, langabetuak, erizainak, langile prekarioak, zein "ukiezin" gisa baztertutakoak, aniztasuna loratuz doa kanpamentuan, eta egunez egun, borroka eta aldarri ezberdinen bateragune bilakatzen ari da. "Langileria haien borrokara juntatzea lortu dute; guztia ez da egina, baina sekulako aitzina-pausoak



EHUNKA KILOMETRO EGINIK

INDIAKO HAINBAT ESTATUTAKO
MILAKA LABORARI NEW
DELHIRA BERTARATU ZIREN
AZAROAN ETA ORDUZ GEROZTIK
HIRIBURUKO BAZTERRETAN
KANPATZEN DABILTZA.

eman dituzte konbergentziaren bidean”, irakur daiteke *Mediapart* komunikabideko *Inde demain: un front ouvriers-pay-sans marche vers la révolution* (“India bihar: langilariaren eta nekazarien arteko frontea iraultzarantz martxan”) artikuluan. Horren lekuko, urtarrilaren 23ko irakaskuntzaren sektoreak grebara deitu izana nekazarien matxinadaren baitan kokatuz protesta; eta urtarrilaren 31 eta otsailaren 1ean banku publikoetako langileak pribatizazioaren aurka mobilizatu izana, hor ere mugimendu sozial orokor baterako deia luzatuz. Mugimendua kontrolatu nahian dabilta langileria sindikatu nagusiak, baina badirudi geroz eta zailagoa zaiela, oinarritik marrazturiko borroka honetan oinarriak duelako erabakimena.

30 URTEZ, INDIA LIBERALIZATUZ

Nazioarteko Diru Funttsaren maileguen truke, 1991n bideratu zituen Indiak lehen neurri liberalak, eta 2014az geroztik sektore publikoaren pribatizazioa areagotu egin du Modiren gobernuak. Hori horrela, laborarien kezka eta ke-xuak ezin hobeto ulertzen dituzte aitzinetik jada neurri liberalak pairatu behar izan zituzten herritarrek.

Kontutan hartu beharreko beste aldagai bat ere azpimarratzen da *Mediapart*-eko artikuluan: “Orain arte Indian nekazarien altxamendu ugari egon badira ere, inoiz ez dute lortu klase popularrak erakartzea, sarritan nekazari aberatsenen zuzendaritzapean zeudelako –adibidez, Frantziako FNSEA sindikatua bezala-. Baina egungo altxamenduan,

nekazari ertainak edo aberatsak baldin badaude ere, oraingo honetan nekazari pobreak eta erradikalenek zuzentzen dute mugimendua. Altxamenduetan, landa eremuetako zein hirietako jendar-te maila proletarioenei gehiago lotzen dira laborari pobreenak”.

Indiako nekazariak borrokarako kultura dute eta azaroan abiatu zuten protesta ez dute lehena, ezta azkena ere –azken bi mendeetan 77 protesta zenbatzen dituzte, bataz besteko, hiru urte guztiz bat-. Baina guztiak ez dira hein berekoak, eta seguruenik aldi honetakoa historian idatzirik geldituko zaie. Eta nork daki? Agian, laborarien matxinada izatetik herritar matxinada izatera pasa zen mugimendu gisa oroitu-tuko dute/dugu. ●

**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

f w



Ula Iruretagoiena

MALGUTASUNA ALDARRI



ARKITEKTURAN ARI DENAK ERANTZUKIZUN POLITIKOA DU, NAHITAEZ



Hibridoa da Ula. Ez da erabat Donostian bizi. Ez erabat Bilbon. Etxe orratz batean jaio zen, eta Aguraingo ermita txiki baten izena darama. Arkitekturari gizarte zientzietatik begiratzen dio. Eta purutasun eza ez da balio bat unibertsitate ibilbidean, ezta lizitazioetarako ere. Baina zehar-begirada horretatik espazioak beste modu batera ikusten dira, nonbait.



MIREN ARTETXE SARASOLA  DANI BLANCO

Ze etxetan jaio zinen?

Zabalburu dorreetako 18. solairu batean. Bilbori begira. Horrek konfiguratu nauela uste dut. Hiriak. Bilbo berezia da; mendi artean uzurtuta dago, ez du itsasorik, eta nire garaian zikina zen. Txikitan behin eta berriz amesten nuen Nerbioi ibaira erortzen nintzela. Kirats hura... Gure auzoa Bilboko luxuzko gun bat zen eta gotortuta zegoen. Inguru degradatu baten barruan, uharte moduko bat zen. Dorre horiek badute, gainera, goian halako gotorleku baten antzerako perfil bat, eta nik hala marrazten nuen nire etxea txikitan. Ez dut auzo-bizitza-

rik izan. Gero Mundakara joan, adibidez, hango kale-bizitza ikusi, eta hura lilura! Uste dut kontraste horrek baldintzatu duela nire arkitekto begirada ere.

Nola heldu zinen, hain zuzen, arkitekturara?

Nire gurasoak arkitektoak dira. Biak. Baina ez bata ez besteak ez ninduten horretara bultzatu. Oso emakume gutxi ikasi zuten arkitektura nire amaren garaian, eta alde horretatik berezia zen. Besteak beste horregatik, oso berandu izan ninduen amak. Aitak ere ez ninduen batere animatu. Alderantziz. Emakume

arkitekto batentzat kalea gogorra iruditzen zitzaion eta ez zuen halakorik nahi niretzat. Administrazioan edo irakaskuntzan nahiko ninduen. Nire amak hala egin zuen lan, arkitektoa izanik ere: administrazioan eta hirigintzan. Hor-taz, banekien ez nuela inoiz aitarekin ez amarekin lan egingo. Ez nuen jarraikortasun ideia batetik aukeratu arkitektura, kontrakoagatik ez bada. Gogoratzen dut amak zera esaten zuela: “Niri arkitekturak begiak zabaldu dizkit.” Eta nik pentsatzen nuela, “zer esan nahi du horrekin?”. Misterio hura gelditu zitzaidan barruan.

Ula Iruretagoiena Busturia

BILBO, 1979



Arkitektoa, arkitekturan doktorea eta arkitektura irakaslea da, EHUn. *Hezkuntza, Hiria, Dibertsitatea* ikerketa taldearen zuzendari eta *Aldiri, Arkitektura eta Abar* aldizkarian erredakzio-kontseilukide da. *Hiria eta bestelako politikak: logika komunitarioa* argitalpenaren egilea da (Tabakalera, 2014). Eta Nizu arkitektura lan espazioan arkitektura eta hirigintza lanetan ere badihardu. Arkitekturak –espazioen materializazioaren bidez– eraldaketarako izan dezakeen gaitasunaz ari da hausnarrean azken urteotan.

Arkitektura ikasketak egitea nahikoa ez, eta arkitekturan doktoretza egitea erabaki zenuen.

Bai. Ikasketak bukatu eta irakaskuntzan hasi nintzen segituan. Eta proiektuak aurrera eramaten. Arkitekto gisa besteren aginduetara egiten da lan gehien, eta autonomia ere nahi nuen... Eta hala aritu nintzen urte batzuetan, jardunaldi erdiz beste batzuentzat lanean eta beste egun erdiz nire proiektuetan murgilduta; egin, egin, egin... Eta momentu batean gelditzeko beharra sentitu nuen. Hori izan zen tesia niretzat. Geldiune bat. Irakurri egin behar nuen. Pentsatu. Denbora hartu nuen hausnartzeko egiten ari nintzenaz, horrek zuen zentzuaz. Kokatzera behartu ninduen. Nondik begiratu nahi diot nik arkitekturari? Zein da nire begirada? Eta hor ikusi nuen bazegoela jende bat arkitekturaren alde politikoa aintzat hartzen zuena, eta horrek begirada zabaltu eta kokatuarazi zidan. Konturatu nintzen arkitektura politikoa dela bi zentzututan: alde batetik patroi kulturalen frogia eta erakusgarri da, eta bestetik eraldaketarako tresna ere bada. Espazioak eraikitzeke unean hartzen diren erabakiek ideologia dute, eta arkitekturan ari denak erantzukizun politikoa du, nahitaez.

Gure hiri eta herriek zer diote, bada, gutaz?

Nola mugitu gaitezkeen leku batetik bestera. Zer eta nondik den zeharkagarria. Zein auzo dauden lotuta eta zeintzuk banatuta. Eskolak non dauden. Handiak ala txikiak diren. Zer dagoen baimenduta eta zer ez. Zer dagoen ikusgai eta zer ezkutuan. Zein erabilerari ematen zaion azalera gehien. Nola hierarkizatzen diren espazioak, zein estetika den onargarria eta zein ez.... Agerian gelditzen da, esaterako, gure muturreko higienismoa. Zer da zikin egotea eta zer ez? Irudika dezagun fatxada zahar bat. Denboraren arrastoa izatea zikin egotea da? Utzikeriarekin lotzen delako ikusten dugu zikin. Pobrezia adierazten duen edozer delako zikina. Pintadak zikinak dira baina publikizitate panelak ez. Hori guztia erabaki politikoen emaitza da, eta balore kolektiboak islatzen eta eraikitzen ditu.

Hirian irakur daiteke gure bizimodua. Historikoki zein sinkronian. Zer dagoen zentroan, esaterako. Industriak antolatu zituen hiriak XIX. mende erditsura arte, gero zerbitzu hiri bilakatu ziren gureak ere, eta orain, turismo hiri izatera pasa dira. Garai batean herri baten zentroa enparantzak, udaletxeak eta elizak osatzen zuten. Horrek irakurketa bat du. Eta erdigunea banketxe-bulegoek eta komertziorako frankiziez betetako kaleak osatzeak, beste bat.

Hiri modernoaren espazio hiperdefinituak kritikatzan dituzu zuk... zertaz ari zara, zehazki?

Espazioen espezializazio handia dago gure hirietan. Maila makro zein mikroan. Maila makroan zonifikazioa dago. Hemen etxebizitzak, hemen lantegiak, hemen zerbitzuak. Sinplifikazio horrekin errazagoa da hiriak pentsatzea. Arrazoi ekonomikoak ere badaude, noski. Hirien zentroko lurra balio ekonomiko bat du, eta aldirietakoak beste bat. Lantegi bat zentroan edukitzea baino errentagarriagoa da nagusiarentzat lur horiek higiezin merkatuari saltzea. Erdiguneko kaleak oinezko bihurtzen dira, eta errenta altua ordaintzeko gai diren dendaz bete; kale horietako lurraren prezioak berez definitzen du ezingo duela edozein komertzio txikik bertako alokairua ordaindu.

Leku batean bizi gara, eta beste batean egiten dugu lan, eta autoa behar dugu batetik bestera joateko. Eta autoak dauzkagunez, distantzia gehiago sor dezakegu. Horrek ekonomia jakin bat bultzatu nahi du, noski. Petrolioarekiko dependiente eta prekarizatzailea, besteak beste. Autoa behar dugu lan egiteko eta lan egin beharra dugu autoa erosteko...

Giza eskalan, berriz, adin, klase eta funtzio aldetik banatutako espazioak daukagu. Haurrentzat, parkeak. Zaharrentzat, bankuak. Gauzak isolatu egiten dira eta loturak puskatu. Hiperdefinizio bat dago: hiriak berak esaten digu nola eseri behar dugun, non, nondik pasa behar dugun... Ez dago bat-batekotasune-

Eta autoak dauzkagunez, distantzia gehiago sor dezakegu. Horrek ekonomia jakin bat bultzatu nahi du, noski. Petrolioarekiko dependiente eta prekarizatzailea"



rako lekuri. Espazio publikoan dena dago aurrez idatzita. Horrek adierazten duena kontrol beharra da. Aurrez jakin beharra zer zertarako izango den. Horrela pentsatzen ditugu hiriak gaur egun, baina ez du zertan horrela izan. Marko bat jar daiteke, eta bizitzari erabakitzen utzi. Jendeari utzi erabakitzen bere beharren arabera espazio horren zer erabilera egingo duen. Espazioa utzi irudikatu gabekoari, ziurgabetasunari, etortzearen denari.

Norentzat diseinatzeko dira espazioak? Noren beharrei erantzuten die?

Gure diziplina hau funtzional, objektibagarri eta tekniko gisa definitzen da. Beraz, gorputz neutro batzuentzat diseinatzeko da. Eta neutrotasun horren atzean, zer dago? Erabiltzaile abstraktu bat. Ustezko gorputz unibertsal bat. Gorputz heldu eta produktibo bat, eta bizimodu homogeneizatu bat, asmatua eta eraikia, baina baliagarria guk geuk sinesteko espazioari 'arrazoizko' ergonomia, neurria eta antolaketa ematen diogula. Ondo ari garela, nonbait. Hala ere, bankuen neurriak gorputz jakin batzuentzat daude pentsatuta. Eskilarak, barandek, komun publikoak... Eta patroiz hori patroiz konkretu bat da.

Baina egiten duguna jende guztia bizitzeko da! Eta zerbait funtzionala da edo ez da, jende eta gorputz horien guztien beharren arabera. Ez dago funtzionaltasun "neutrorik". Horregatik da interesgarria gizarte zientzietatik ere begiratzea arkitekturen. Antropologia-

tik, esaterako. Artearen, teknikaren, eta gizarte zientzien bidegurutzean dago arkitektura, gizarte islatu eta moldatzen duelako.

Zenbateraino moldatzen du, bada, arkitekturak gure bizimodua?

Lotura oso estua da. Gure bizitza ibilbidea arkitektura erabakiek ere markatzen dute. Bizitza aldaketak maiz bizileku aldaketa dakar. Gurasoenetik ikasle pisura. Edo bikotearenera. Eta haurrak izandakoan, etxe handiagoa. Egitura afektiboak desegiteko momentuan ere, espazio aldaketak eman daitezke. Edo zaintza lanen kudeaketak hala eskatzen duenean. Ibilbide profesional zein pertsonalak espazio aldaketa mugarriz beterik daude. Eta nola ez, sistemak –eta, beraz, hirigintzak berak– familia eredu bat bultzatzen du.

Ameriketako etxe suburbanoaren ideia hezurretaraino sartu digute, esaterako. Ametssetako etxea. Autoa eta lorategia. Arrakastaren ideia hori da. Gaur egun familia bakarreko etxebizitza jende askoren bizi-arrakasta eredu eta helburua da. Kontua ez da benetan arkitektura forma horretan bizi nahi dugula, benetan. Sartu digutena da kontsumo gaitasunean pausoak ematen joan ahala, aukera daukagunean, geure partzelatxoak lortzen saiatu behar dugula. Norbere kontrol begetalerako txoko eta guzti. Eta izan dadila handia. Zergatik behar ditugu espazio domestiko handiak? Zertarako behar dugu hainbeste? Edukitzeko. Badaezpada. Edukitzea beti da ona. Eduki eta akumulatu.



NATURAREN GAINETIK

“Gure lurraldearen antolaketa adierazten du naturarekiko dugun harremana. Trenbideen ibilbideak erabakiko du nondik eta noraino iritsiko diren gauzak, besteak beste, hiriko nekazaritza lurra okupatu ditugunez, beste nonbaitetik ekarri behar ditugulako elikagaiak. Euskal Herriaren irudikapenean baserria elementu sakratua da, baina, gero, hiri megalopolioen errealitate honetan, baserriak gure erromantizismoaren sinbolo baino ez dira... Gure lurra, ibaiak, basoak, ustiapenerako baino ez ditugu ulertzen, praktikan. Ibai bat berbideratzen edo lurperatzen dugunean, gainetik gaudela sinesten dugula baieztatzen ari gara”.

PANDEMIA

“Mundua hankaz gora jarri duen zomorroa oso arkitektonikoa da, eta espazioei begira jarri gaitu. Pandemiak argi utzi du zein hauskorrak diren gure ekonomia bezalaxe gure hiriak. Agerian geratu da politika guztiak, hiriaren postalaria begira egin direla eta hori ez dela bertakoen interesengatik egin. Begira Donostiako Alde Zaharra. Pandemiaren bistaratu du gure hirien diseinua ez dela bizitzeko egokia. Eraginkortasunaren, produktibitatearen eta azkartasunaren parametroetan soilik duela zentzua. Parametro bat aldatu, eta dena bihurtu da zentzugabea. Bankuak eta plazak ez dira erabiltzen diseinatuta zeuden horretarako. Lehen kaleak leku batetik bestera iristeko ziren, eta paseatzeko zeuden pasealekuak. Eta pandemiaren dena da pasealeku. Espazioen antolaketa malgutasuna izan behar luke aurreikusitako gabeko egoerak jasateko”.



Eta etxearen irudi hori bikoteari eta umeei loturik ageri zaigu. Iruditeria horretan, arrakasta profesional eta pertsonalak ez du sare afektibo baten eraikuntzarekin loturarik. Oinarria bikotea eta familia nuklearra dira. Eta hori guztia bizimodu eta kontsumo eredu bati lotzen zaio, noski.

Eta bitartean, hirietan, familientzako apartamentuak bata bestearen gainean, denak elkarren antzeko.

Hiru logela: bat handia eta bi txiki. Beti eskema bera erreproduzitzen da. “Hau saltzen da” esaten dio promotoreak arki-

tektoari, eta arkitektoak hori egin behar du. Oso salduta gelditzen da bat merkaturatzea dagoenean. Eta guri ere, erabiltzaile gisa, erabaki ausartak hartzea asko kostatzen zaigu.

Etxea antolatzea oso gauza intimoa da. Eta transzendentala ere bai. Arkitektura diru inbertsio inportante bat da beti. Eta jende gehienarentzat bere bizitzako diru inbertsiorik inportanteena ez bada, inportanteenetarikoa izango da. Erabaki bakoitza berebizikoa da. Gure bizipenak eta harremanak baldintzatuko dituzten hautuak dira. Eta bestetik, etxeak karga sinboliko handia du. Ba-

koitzak bere motxila darama. Norbere etxeak izan direnen oroimena. Kanpoko begiradaren irudikapena. Etxea identitatea da. Norbaiten etxea ikustea norbait biluzik ikustea bezalakoa da.

Lanerako material sentsiblea izango da hori inoren etxea zaharberritzen edo berregituratzen lan egiten duzunean, ezta?

Oso prozesu intimoa izaten da. Gainera, maiz, aldaketa momentu batean gertatzen da. Berregite edo birkokatze egoera bat da. Eta hor ikusten duzu norbere arrisku mailak non dauden. Hau ezin dut. Uste nuen nahi nuela, baina ez naiz ausartzen... Hor ikusten duzu zuretzat leihoak kanpoko ikusteko diren, batik bat, edo kanpotik zu ikusi ahal izan zaitzaten. Oheak zer balio duen zuretzat. Komunak. Dibortziatu berri zela, oraindik hastapenetan, bezero batek esan zidan alabaren logela aldatu nahi zuela. Eta etxera sartu eta desastre zegoena egongela zen. Bere alabaren logela primeran zegoen. Baina bere alabaren espazioa zaindu nahi zuen. Lehenengo hori, eta gero gerokoak. Eta bere logelan birentzako ohea kendu eta txiki bat jarri nahi zuen! Eta gezurra esan nion. “Ez, barkatu, baina espazialki, logela honek ohe handi bat eskatzen du”. Horrelako prozesuetan arkitekto gisa zure lekua zein den jakitea oso zaila da.

Ez nuen pentsatu arkitekturak gure bizitzan izan dezakeen eraginean. Zer ardura zuena, ezta?

Bai. Guk proiektatu egiten dugu –arkitektook ez dugu diseinatzen dugunik esaten, guk proiektatu egiten dugu– eta edozein proiektio da, izatez, akastuna. Nik jakin behar dut ze behar egongo diren, baina aldi berean espazioa utzi behar diot datorrenari. Oraingo beharrak ez dira baitezpada biharkoak. Baina, ziurgabetasunean deserosotasunak eta erresistentziak sortzen zaizkigu. Proiektatu nahi dugu, zer horrek irauten dezan –hori ere kulturala da, ez baitago dena irauteko eraiki beharrik– eta ez dakit zertarako beharko den. Malgutasuna, egokitze-ko gaitasuna, erresilientzia... teoriarik oso politak dira eta denok gaude alde, baina kontu kulturala da; gure kontrol beharrak mugatzen gaitu eta ez dakigu nola egin. Gure bizitzetan ere berdin. Orain ez dakigu hemendik bi astetara nola egongo den egoera eta ez jakite horrek berak sufriarazten gaitu. ●



Xenofobia errukiorraren eta erasokorraren artean



ASIER BLAS MENDOZA
EHU-KO IRAKASLEA

Lagun aurrerakoien arteko afaria batean, deskuiduan, elkarriketa geopolitikara bideratu zen. Gai jar-tzaileak etorkizuneko balizko txinatar hegemoniari beldur ziola esan eta iparramerikar inperialismoa txinatarra baino nahiago zuela adierazi zuen argudio kultural bat erabiliz: "Azkenean, AEBak gure-gandik gertuago daude, yankiek gure baloreekin eta bizitza estiloarekin zerikusia dute". Inork ez zuen ezer esan, inork ez zuen sentitu adierazpen hori xenofobia zenik eta inork ez zuen beharrezkoa ikusi eztabaida datuekin objektibatzea, inperialismo hobeagoaz edo txarragoaz hitz egin behar bazen. Afariko parte-hartzaileek ondo ulertu zuten markoa: gureak eta besteak. Logika horretan afera ez da zer den ona edo txarra, logika horretan kultura arrotzarekiko mesfidantza eta arbuioa dira nagusi.

Politika konparatuan etorkizuna aurreikusten saiatzen gara lehen aldiaz ikasiz, horrek ez du esan nahi huts egin ez daitekeenik, baina askotan balorazio politikoak egiteko garaian dauzkagun elementu bakarrak orain arteko gertakariak dira.

Azkeneko hamarkadei begiratzen badiegu, Txinak ez dio inori eraso egin, AEBek ordea, gerra eta eraso militarren zerrenda amaigabea dute, besteak beste, nazioarteko legedia hautsiz eta ez bakarrik arlo militarrean, baita ekonomikoan ere. Txinari, ordea, oso tatxa gutxi jarri dakioke nazioarteko politikan: legedia errespetatzen duen jokalarri zuhurra eta kooperatiboa da.

'Besteak' boteretzen direnean eta beraien adierazpen geopolitikoek subiranotasuna, indar ekonomikoa eta defentsarako gaitasuna erakusten dituztenean, xenofobo errukiorrak erasokor bihurtzen dira

Beijingen aurka Txinako itsasoko uharteen gaineko soberania borrokak eta kutsadura aipatu ohi dira. Baina, alde batetik Txina ez da uharte gehien okupatu duen herrialdea eta lehian dauden bost herrialdeen artean uharteak harresitu zituen azkena da. Halere, gatazka honek ez du eragin esku-hartze militarrik eta bere arerioekin kooperazio ekonomikoa zabaltzen jarraitu du. Bestalde, une honetan energia berriztagarrien lehen produktore da Txina eta 2060an karbonoaren neutraltasuna lortzeko plan bat du martxan isurketen kantitatea naturalki xurgatu daitekeen tamainakoa izan dadin.

Halere, xenofobia itsua da datu enpirikoen aurrean. Mendebaldeko hedabideak begiratzea baino ez dago: zenbat kritika eta barre egin dituzte hainbat herrialdetako COVID-19aren aurkako

neurri, sendagai eta txertoen inguruan! Zenbat egia erdi eta berri faltsu estigmatizazio kulturala elikatzeke! Eta nondik eta pandemiak munduko hildako kopuru handiena utzi duen partetik.

Errealitatea da Mendebaldeko pentsamendu nagusia, liberala eta berriki kultur diskriminazioaren aurkakoa, xenofobiaren eraikuntza mozorrotua baino ez dela. Pentsamenduaren hegemonia neoliberalari esker indibidualizatu egin da xenofobiaren pertzepzioa; hau da, jarrera xenofoboak pertsona indibidualekin erakustea onartezina da, baina, aldiz, indibidualak kolektibora eskalatzeko duenean xenofobia esplizitatzen eta haren kontrola lurruntzen hasten da.

Kultura desberdinen aurrean jarraera ez xenofoboak agertzea, betiere *beste* horiek gutxiengo zaurgarriak edota ahulak badira, beren tolerantzia-balioengatik moralki nagusi sentitzen diren xenofobo errukiorrak suspertzen ditu. Hala ere, beste kulturak horiek (*besteak*) boteretzen direnean eta beraien adierazpen geopolitikoek subiranotasuna, indar ekonomikoa eta defentsarako gaitasuna erakusten dituztenean, xenofobo errukiorrak erasokor bihurtzen dira, izaera xenofobia duten estigmatizazio kultural guztiak paseatzera ateraz. Horregatik, Mendebaldeko hedabideak titular eta kualifikazio xenofoboaren benetako makinak dira, besteak beste, Txina, Errusia, Iran eta Latinoamerikako edozein herrialde subiranistaz hitz egiten dutenean. ●

Emanen nizuke musu



BEIA SALABERRI
IRAKASLEA



PAULA ESTÉVEZ

Emanen nizuke musu, zuk jakin zergatik, emanen nizuke gogotik.

Bai, emanen nizuke, baldin eta oraindik horretarako ohitura balitz, zilegi balitz, dagoeneko ez balitz azken hamabi hilabeteek memorietako zulora eraman duten keinu kolokiala, ohikoa, arrunta. Lehengo gauzen artera lerratu ez balitzai-gu. Noiztik ez diogu bat eman lagunari, lankideari, gorroto dugunari, lehiakideari? Zenbat denbora ez dugula musu baten fereka hartu eta eman? Erranen didazue, ez gara denak penaturik egonen praktika horren desagertzearekin, ez da dudarik. Alta, gure komunikazio ez linguistikoa beste hainbestez pobretuko da, gu oraindik ohartzen ere ez garela.

Bazen aita-amek etxeko sargian ematen ziguten hura etxetik bagindoazenean, eskolara, bidaiara, betiere haiengandik banatzearen eta berriz juntatzearen esperantza zena, supazterreko abaroa hitzematen ziguna, gurekin generamana noranahi; holakoen berriz eman ahal izateko, adibidez, zernahi egin genezake hauen oroitzapen hutsarekin bizi garenok.

Bazen ttantta adindu eta anitzetan mutxurdin zahar-usainekoaren eta perfume merkeztuaren musua. Etxera etorri bezain laster, aurpegia bi eskuen

artean tinkatzen zigun eta hantxe pausatzen zigun, hauxe haur ederra zioela, musu luzea, matela bigunaren umela lagun; sentsazioa eta batez ere usaina mazelari zeriola irauten genuen oren luzeetan.

Gehienetan, familia-kide eta lagun artean elkar agurtzeko molde izugarri arrunta zen, batak ez ziona nehoiz ukatzen besteari, ballet adostua zen, ohiko molde errateko hurbilekoa zaitut, zuregana nator, entzunen zaitut laster, egunon. Batzuetan matela kontaktu soila zen, besteetan soinuak lagundurik, beste batzuetan oraino besoez inguratuz elkar. Aldi oro, musu-kideen arteko espazio bat sortzen zuen, pixka bat harreman erregistro bat definituko balu bezala.

Lankide artean gauzak ez ziren hain sinpleak: baziren agurtzeko ohituratzat zutenak (aspertzen ez zirenak muatx eta muatx), gustukoa zutenak, ez zutenak, nahiago zutenak eskua tinkatu, edo biak batera eskua-musua, edo ez bata ez bestea. Ai, zenbat izpiritu gaitzitu egon al ziren, zeinek musu zeinek eskua zeinek deus nahiago, eta sekulan elkar harmonizatzea lortu ez zutenak!

Batzuetan musuak opresioaren eta menpekotasunaren adierazgarri ere gertatzen ziren. Nagusi, arduradun, hau-

tetsi hori, hitzartzeak aitzin pott xerka etortzen zen zuregana, fabore bat egiten balizu bezala edo ukatzen ahal ez diozun zerbaiten gisan, betiere berak, alde bakartasunean hautatuz ematea ala hartzea.

Etsai artean ere ikusten ziren, musu luze eta azpimarratuak, irriz zuriz jantziak, eztabaida luzeen iragarle, gaiztoa ez naiz ni, zu baizik agertzen zutenak. Akordio politikoen sinboloak ziren, Brejnev-Honecker edo Iglesias-Domenech artean bezala. Promesa sentsualak ziren, aurpegiaren behealdean ezpain hegitik hain hurbil pausatzen genituenean.

Menpekotasun edo traizio pottak ere izan ziren. Komunikazio musuak. Alor kulturalako pottak, Madonna eta Britney, Serge eta Jane. Toulouse Lautrec-en musu transgresiboa. Lichtensteinen pott tristea. Aingeru zurbilek elkarri sekulan ematen ez zizkieten haiek.

Afekzioa, protokoloa, etsaigoa, menpekotasuna, hurbiltasuna, faltsukeria, amodioa, laguntasuna, desira, horien guztien adierazteko kode berrien beharretan gaude. "Musua molde seguruena da isiltzeko eta aldi berean dena errateko" halaxe zioen Maupassant-ek.

Emanen nizuke musu, zuk jakin zergatik. ●

Mundura ireki



**ANE LABAKA
MAYOZ**
BERTSOLARIA

Mexikon gertatu zitzaigun duela urte dezente. Latinoamerikako inprobisatzaileen topaketa batzuetarako gonbidapena luzatu ziguten, eta hiru neska gazte joan ginen hango *maestro* artera. Ia hilabete iraun zuen bidaiak izugarri mugitu gintuen; zentzu askotan. Herriz herri ibili ginen. Bik bertsotan egin genuen eta hirugarrenak, koaderno txiki bat aldiro soinean zera-manak, guk kantatutakoak itzuli zituen jendaurrean. Topaketen amaiera aldera, tristatu egin ginen parte-hartzaitetako batek galdera hura tirokatu zigunean: gaztelera hain ondo menderatzen baduzue, zergatik ez duzue zuzenean hizkuntza horretan inprobisatzen? Tristatu egin ginen, hilabete osoan oholtzan nahiz oholtzapean azaldu nahi izan genuena nahi bezain argi azaltzen asmatu ez genuelako. Ez dut gogoan une hartan zer erantzun genion. Sentitzen genuena adierazteko zein hitz erabili ote genituen. Baina galderak itzulerako bidaiarako zer pentsatua eman zigun.

Urte batzuk geroago, eta geografiko-ki ere gertuagora etorrita, Leioako Arte Ederretako fakultatea bisitatu genuen hizlari gisa. Lau emakumezko osatzen dugun sormen kolektiboari buruz hitz egiteko deitu ziguten. Hara iristean jakinarazi ziguten hitzaldia gaztelera izan-

go zela, gaztelera izan ere entzuten egongo zirelako. Hala nola itzuli genuen aurrez prestatuta geneakarra, ez izerdirik isuri gabe, eta, gure proiektu batzuk azaldu ondoren galderen tarte ireki zenean, noizbait entzundako galdera baten oihartzuna belarriratu zitzaigun. Egiten genuena ondo zegoela esan zigun mutil hark, oso interesgarria zela baina... Zergatik ez genuen beste hizkuntzaren batean sortzea probatzen. Mundura irekitzeko, badakizue.

Eta bai, kutsu panfletariodun zutabe honetatik haratago, guztiz zilegi izan daiteke sortzaile bakoitzak hizkuntza bat edo beste bat hautatzea. Zilegi iruditzen ez zaidana zera da: diglosiak alde-rik alde zeharkatzen gaituen bitartean hizkuntza bat edo bestea ausaz aukeratu izana defendatzen saiatzea. Orain eta hemen, hautu politikoa da euskaraz sortzea. Eta ez naiz bukaerako emaitzez bakarrik ari, ezpada sormen prozesu osoak ere euskaraz eta euskaratik garatzeaz.

Eta ez, nik ez dut hautu honen alde egiten euskara txikia, ederra, Europako hizkuntzarik zaharrena, Aitorren hizkuntza zaharra, gure arbasoena, txan-txangorriak zaintzen duena... delako. Funtzionala delako baizik. Noranahikoa. Mundura eta munduak irekitzeko balio didana. ●

Surflari abil-dorpeak



EDU ZELAIETA ANTA
IRAKASLEA ETA
IDAZLEA

Han eta hemen agertu dira kasuak. Parte txarreko birusa bezalatsu hedatu dira antzeko albisteak. Lotsaren eta eskandaluaren oihartzunak errepikatu dira. Berriz ere. Kargugabe-zeak, dimisioak, alegatuak nahiz barkamenak hainbat hizkuntzatan entzun dira. Halako batzuk, ongi dakigunez, hurbil-hurbilean ere gertatu dira, euskar gutxi aditu arren.

Barka biezat maite dudak Antropologia Kulturalaren diziplinak: txertoek eragindako olatuak nazioarteko bazter frankotan ikusi izan dira azkenaldian; ezin, beraz, eremu soziokultural jakin bati atxiki fenomeno miserablea. Ari

gara, betiere, txertoak erosteko aukera izan duten geure herrialde aitzinatuek. Ari gara, arestiko olatuak gogoan, surflari abil-dorpeez: lehenasun publikoei muzin eginda, gordeka txertoaren ziztada gozoa hartu duten kargudunek, ahai-deez, lagunez eta abarrez. Kolektiboaren kontra erabilitako xiringez.

“Beste mami bat ere baduk hor”, zirikatu nau aspaldi ikusi gabeko izeba batek. Gertakarien argitan oraindik ikusi ez dugun estrategia batez ari omen zen: eskandalo lotsagarriak direla medio, mundu guztiak txertoa jartzea modu eraginkor batean sustatu nahi duena. ●

Psikotxapaldia



INMA ERREA
IDAZLEA

2020ko Euskaraldia amaituta ere, oraindik ikusten dira txapak Iruñeko kaleetan, 2021eko hasiera honetan. Lehen Euskaraldian ere gertatu zen: Nafarroako euskaldun anitzek nahiago izan zuen luzatu *ahobizi*- edo *belarriprest*-txapa eramateko aldia. Funtsezko abantaila bat ikusi zuten: elkar berehala ezagutzea, jakitea txapadun bat ikusi ahala harekin euskaraz mintzatzeko aukera izan zutela. Eta jende frankok erabaki zuen, Iruñerrian bederen, ahalik eta gehien aprobetxatzea egokiera. Nago berokiak kendu eta armairuan gorde arte segitu zutela batzuek txapa jantzita.

Aurten txapa gutxiago ikusi ditut Iruñean lehen Euskaraldian baino, baina hori ere normala da, pandemiak galarazi baitigu kalean gehiago ibiltzea, txapak lagun hiriko euskaldun jendearekin gehiagotan elkartzea, euskaldun (ezagun eta ezezagun) gehiagorekin hitz egitea. Hala ere, oraindik ikusten dira txapak berokietan –nik ere zalantza izan dut: berriro jantziko?–.

Nire buruari galdetzen diot nolakoa izanen den ezezagunekin euskaraz aritzea aurretiko eskanerrik gabe, natural, arbuio-keinu bat edo ezezko garratz bat jasotzeko errezelarik gabe

Iruñean zaila baita euskaraz mintzatzeko hastea, ez bada ezagunekin.

Niri eskaner mentala pizten zait beti. Euskaraz saiatuko naiz? Euskaraz jakin du? Ez du gaizki hartuko? Eta bat-batean –ez beti baina askitan– nola edo hala (aski izan daiteke “iepa” bat) ohartzen naiz baietz, pertsona horrekin euskaraz hitz egin dezakedala, eta, nolabait, (mintza)lagun dudala. Bi gauza horiek, ohartzeak eta euskaraz egiteko paradak, ustekabeko poza sortzen dute niregan –eta beti ekartzen didate gogora

aitak sentitzen zuen arraidura ospitaleko erizain batek euskaraz hitz egiten zionean–.

Batzuetan nire buruari galdetzen diot nolakoa izanen den ezezagunekin euskaraz aritzea aurretiko eskanerrik gabe, natural, arbuio-keinu bat edo ezezko garratz bat jasotzeko errezelarik gabe. Edo bestearengan enbarazu sortu gabe euskaraz ez dakielako. Gaztelaniaz bezala. Eta esaten diot nire buruari arraro samarra dela hala ibiltzea, zalantzekin, ez mezuaz, baizik eta mezua helarazteko hizkuntzaz.

Lau hamarkada luze joan dira euskaraz hasi nintzenetik, eta gutxitan egin dut euskaraz ezezagun batekin aurrez pentsatu gabe ea izanen dudan horretarako “baimena”.

Horregatik oso ongi ulertzen diet Euskaraldiaren txapa kendu nahi ez dutenei. Arazo psikosozial ugari aurretzen dizkigute txapek: bat ikusita –axola gutxi *ahobizi* den edo *belarriprest*– lasai eta eroso has gaitezke euskaraz eramailearekin. Lasai eta eroso ematen ahal diogu txapa, euskaraz. ●

2021 EuskarAbentura

espedizioa

IZEN
EMATEA
ZABALIK!

- Matrikulazio epea zabalik
- Martxoaren 12ra arte

▶ www.euskarabentura.eus

Babesleak

Laguntzaileak

Hedabide laguntzaileak



19,5€

%100 kotoi
organikoa



Kolore berriak!

Bost kolore aukeran:
Urdina, beixa, arrosa, berdea eta grisa.

Lurra herriari deika

Jaten dugun elikagai bakoitzarekin,
nekazaritza eta gizarte eredu bat bultzatzen
ari gara. Beraz, jatea bihur dezagun egunean
hiru bider egiten dugun plazerezko iraultza!

Erosteke: argia.eus/azoka 943 37 15 45

**Agroekologia mugimendua
eta ARGIA elkarlanean**

Kamiseta erosita, 2€-ko ekarpena egingo
dizu agroekologia mugimenduari
eta beste hainbestekoa ARGIAri.

NEXT GENERATION EU

Hurrengo belaunaldiei zorretan utziko dieguna

Europar Batasuneko herrialdeek dirutza mugiaraziko dute koronabirusaren pandemiari aurre egiteko. 750.000 milioi euroko aurrekontua duen Next Generation EU deituriko planaren bidez, trantsizio ekologiko eta digitala bideratu nahi da. Baina aurkeztutako proiektuek ba al dute zerikusirik helburu horiekin? Nola aukeratu dira? Eta zein logika eta ordainsairen truk emango ditu Europak laguntzak?

 URKO APAOLAZA AVILA

Plan honek, aurrean dugun erronka handia, aukera bihurtzen du, ez bakarrik errekonferazioa lagunduz, baita gure etorkizunaren inbertituz ere: Europako Itun Berdeak eta digitalizazioak, enplegua eta hazkundea bultzatuko dituzte, baita gure gizartearen erresilientzia eta ingurumenaren osasuna ere. Hau Europaren garaia da. Hitz horiekin aurkeztu zuen joan den maiatzean Ursula Von der Leyen Europako Batzordeko presidentek Next Generation EU plana (NGEU), pandemiak eragindako krisi ekonomikoari aurre egiteko diseinatua. Sekula ikusi gabeko milioi-jauziaren “aukera” aprobetxatzeko eskatu dute Europa osoko agintariek. Baina jende asko beldur da, ez ote den multinazionalak berdez tindatu eta diruz blaitzeko izango, eragindako zorrak herritarrek eta zerbitzu publikoek nozitzen dituzten bitartean.

Denera 750.000 milioi euroko aurrekontua du NGEUK –asko dirudi, baina

Europar Batasunaren BPGren zati txiki bat baizik ez da-. Hortik 390.000 milioi euro, itzuli behar ez diren transferentzia edo laguntza zuzenak izango dira, 2021 eta 2024 urteen artean emango direnak, eta gainerakoa (360.000 milioi) mailegatu egingo da 2026 urtera arte, hau da, itzuli egin beharko da.

Partida handiena Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoarentzat izango da, aurrekontu osoaren %90 hartzen du honek (672.500 milioi euro) eta trantsizio ekologikoko eta digitaleko proiektuetan inbertitu eta erreformak egitera bideratuko da, “suspertze iraunkorra eta erresilientea” lortzeko helburuz. Europako Batzordeak aholkatu du erreformak edo inbertsioak zazpi eremutan egitea, besteak beste, berriztagarrietan, 5G teknologian edo hezkuntzaren digitalizazioan.

Europar Batasuna osatzen duten estatuko bakoitzari zenbat diru eman erabakitzeke metodo bat erabili dute, azken

bost urteetako hazkunde eta langabekeria tasak kontuan hartzen dituen. Horren arabera, Espainiako Estatuak jasoko luke diru gehien: 140.000 milioi euro. Horietatik 79.796 milioi transferentziak lirateke –46.000 milioi 2021 eta 2022 artean jasotzekoak– eta beste 68.000 milioi inguru maileguak. Frantziako Estatuak, berriz, 42.302 milioi euro jasoko lituzke, kasu honetan, maileguak lirateke. Espainia, Italia, Frantzia eta Poloniaren artean, funtsaren %60 eramango dute.

Eusko Jaurlaritzak, Suspertze eta Erresilientzia Mekanisмотik 5.702 milioi euro “lortzeko helburua” adierazi du, 188 proiektu barnebiltzen dituen *Euska-di Next 2021-2026* programaren bidez. Hidrogeno korridorea, ibilgailu elektrikoaren baterientzako giga-faktoria... Petronor, Iberdrola eta autogintzako konpainia handi asko daude proiektu horien atzean. Nafarroako Gobernuak, bestalde, *Nafarroa Susper-tu* programaren barruan





URSULA VON DER LEYENEK
2020KO MAIATZEAN AURKEZTU
ZUEN NEXT GENERATION
EU ERREKUPERAZIO PLANA.
ARGAZKIA: EUROPAKO BATZORDEA

125 proiektu aurreikusi ditu 3.419 milioi euroko aurrekontuarekin –ez du zehaztu europar funtsetatik zenbat diru jasoko lukeen–, tartean AHT, Nafarroako Ubidearen bigarren fasea eta antzeko azpiegiturak daude. Bi erkidego horietako proiektuak aztertu ditugu 26 eta 27 orrialdeetan. Euskal Hirigune Elkar-goak oraindik ez du NGEUrako egitasmo zehatzik aurkeztu, ARGIAri erakundetik azaldu diotenez.

Honaino datuak. Baina zein epe, baldintza, hautaketa prozesu eta logikaren arabera iritsiko da gure geltokietara Mr. Marshall berri hau? Hurrengo lerroetan xehatuko ditugu horiek guztiak. Nolanahi ere, plan honen lurreratze pista zein izango den aire zabaletik begiztatu liteke jadanik: azken urte luzeetan egiturazko krisian sartuta, sinetsarazi nahi digute posible dela kapitalismo inklusibo, gizatiarrago eta berdeago bat izatea –Davosen entzun berri dugun bezala–,

aurrerakuntza teknologikoak argudiatuz, kontraesan nagusi bati ezikusia egin ez: geroz eta gehiago produzitzeak ez

Funtsak erabat baldintzaturik egongo dira hasieratik, hori da NGEUri egin zaion kritika nagusietako bat

du asebeteko sistemak duen etekin gosea, krisi energetiko eta klimatikoan are gehiago sakonduz. Baina ez gaitezen ondorioetan aurreratu.

“EZ, BIZI NAIZEN ARTEAN”

Askok oso gogoan dute 2012ko ekainean, aurreko krisialdi ekonomikoaren erdian, Angela Merkel Alemaniako kantzilerrak esandakoa, ez zela eurobonorik izango “ni bizi naizen artean”. Ia hamarkada bat eta gero, hitz horiek irentsi behar izan ditu, Europar Batasuna zorra jaulkitzen ari baita. Zer gertatu da? Covid-19aren pandemiak sorturiko lurrikarak dena aldatu duela, Bigarren Mundu Gerratik ez baita halako hondoraterik izan. “Ni bankari izan nintzen eta ez dut sekula halakorik ikusi –azaldu du Luca Bonarcossi finantza jasagarrietan aditu eta ingurumen aktibistak–. Aurreko krisian bagenekien arazoa bankuak zirela, baina koronabirusarekin... urteetan bizi behar izango ote dugu honenkin?”.

ODG, Ekologistak Martxan eta Omal erakundeek antolatutako *Next Gene-*



ZORRA ETA MURRIZKETAK. Errekuperazio planarekin kritiko direnek, hurrengo belaunaldiak zorpetu eta murrizketa sozialak ekarriko dituela diote. Irudietan, pentsio duinen aldeko mobilizazioa Gasteizen abendu honetan, eta klima aldaketaren kontrako greba 2019ko irailean.

ration EU-ren barrunbeetara bidaia jardunaldian plazaratu du Bonarcosik bere analisisia –interneten aisa aurkituko du irakurleak hitzaldia, gaztelaniaz–. Italiako adibidea darabil finantzariak: munduko bigarren zor publiko handiena duen herrialdeak kiebra joko luke errekupeziarako europar plan hau gabe, eta “Italiak zorraz ez kitatzeak, ez luke antzik izango Greziakoarekin, Europar Batasunaren amaiera litzateke”. Hortik Merkelen iritzi aldaketa, kolapsoa saihesteko.

Nazioarteko Lan Erakundearen arabera, 2020an lan egindako orduak %8,8 murriztu ziren mundu osoan eta 255 milioi lanpostu deuseztatu ziren, 2008ko krisia halako lau. Enplegu galarak sektore prekarioenak astindu ditu, behin-behineko kontratua edo lanaldi partziala dutenak batez ere –normalean gazteak eta emakumeak–. Koronabirusaren krisia ekonomiarengandik “exogenea” dela esan digute, eta hau igarota, V formako suspertzea etorriko dela: “Hori bai, esan digute hori gertatzeko beharrezkoa dela inbertsioak 4.0 iraultza deiturikoan egitea –dio Paul Llonch ekonomialariak–. Baina benetan uste dute estrategia aldaketa horrek hazkunde eta ongizate garai bat zabalduko duela? Fidatu al gaitezke?”.

Llonch Kataluniako Taifa Ekonomia Kritikoko Seminarioko kidea da eta

Realitat webgunean azaldu duenez, “digitalizazio kapitalista areagotzea zerk justifikatzen duen ulertu nahi badugu, produktibitateaz hitz egin behar dugu”. Bere esanetan –hainbat ikerlari eta aditu aipatzen ditu– egungo sistemak zer-

Nondik aterako da dirua? Historian inoiz ikusi den bono jaulkitze handiena eginez. 2026an diru iturria itxi eta 2058 arte ordainduko dugu “hipoteka” hori

bitzu eta merkantzia gehiago ekoiztu ditzake, baina ez da gai balio gehiago produzitzeko, eta hor dute kapitalistek arazoa: “Inbertitzaileari bost axola zaio bonotan, mantekilan edo kanoietan inbertitzen duen, etekina nahi du”.

PRESAKA ETA HURRENGO BELAUNALDIEN DIRUAREKIN

NGEUrako proiektuak aurkezteko epea apirilaren 30 arte dute estatuek. Lehenik, udalek eta foru aldundiek Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Gobernuari helarazten dizkiete, hauek Madrilera eramango dituzte, eta azkenik Bruselara iritsiko lirateke Espainiako Gobernuak “interesgarrien” ikusten dituenak. Frantziako estatuan ere Parisek du azken hitza. Europako Batzordeak bi hilabeteren buruan aztertuko ditu iragazia pasatakoak eta Europako Kontseiluak lau aste lituzke hautatuak onartzeko. 2021eko bigarren seihilekoan iritsiko litzateke laguntzen lehen zatia.

Diru kopuru multzo handiak eta presaka ibiltzeak zalantzak sortu ditu kudeaketa eta gardentasunari dagokionez. Izan ere, administrazio askok aholkularitza enpresa pribatuetara jo du prozesua gidatzeko, PwC edo Deloitte kasu. Mikel Otero Eusko Legebiltzarreko EH Bilduko bozeramaileak elkarlanari “muzin egitea” leporatu dio Eusko Jaurlaritzari: “Akats estrategikoa da, Europako funtsekin finantzatzeko diren proiektuen hierarkia guztion artean, auzolanean, erabaki beharko genukeelako, gero Madril defentsa bateratua egiteko”. Iñigo Urkulluren exekutiboak aurkezturiko 188 proiektuetatik askotan ados egon daitekeela dio EH Bilduk, baina beti ere lankidetzara publiko-pribatuari “baldintza argiak jarrita, onura soziala bermatzeko”.

Eta nondik aterako da dirua? Historian inoiz ikusi den bono jaulkitze handiena eginik. 2026an diru iturria itxiko da, eta zorraren titulu publikoekin sortuko den “hipoteka” ordaintzen hasiko gara, 2058 urtean amortizatu arte, hiru hamarkada beraz. Europar Batasunak hainbat zerga berri ezartzea proposatu du horretarako –karbonoaren, plastikoen edo digitalen gaineko tasak–, baina fiskalitate politikan ez da inoiz adostasunik izan europar herrialdeen artean, eta bide itsua dirudi horrek. Ondorioa? Zor publiko gehiago eta murrizketa sozialak. “Gastatuko dugun dirua ez da gu-rea, hurrengo belaunaldiak ordainduko du osorik, egun 15 urte dituzten eta klimaren alde mobilizatzen diren horiek, horregatik deitu diote Next Generation”, dio Bonarcossik.

INDARREZKO-ALKANDORA

2008ko krisian ezagun egin zen *Troika* delakoa (Europako Banku Zentrala, Nazioarteko Diru Funtsa eta Europako Batzordea), “erreskataturiko” herrialdeei neurri oso gogorrak inposatzen zizkielako diru truk, beltzez jantzita. Oraingoan baina, ez da halakorik behar izango: lagunduko diren proiektuak erabat baldintzatuak egongo dira hasieratik. Hori da NGEUri egin zaion beste kritika nagusietako bat; ELAk horretan egin du azpimarra batez ere. Sindikatuaren ustez, kontua ez da eztabaidatzea funtsak nora bideratzen diren: “Eredua garbi dago: maileguak eta transferentziak egiturazko erreformen eta aurrekontu-austeritatearen truke”.

Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren laguntzak “Europar Seihiilekoaren” barruan onartuko lirateke. Urteko lehen sei hilabeteetan, estatuek euren aurrekontuak doitzen dituzte EBk ezarritako helburuen neurria. Prozesu horretan, Europako Batzordeak “gomendioak” ematen dizkie lehentasunak jarri eta planak diseinatzeko, eta ministroek osaturiko Europako Kontseiluan adosten dira behin betiko gomendioak.

Euskal Herriak Kapitalari Planto! dinamika salatu du europar funtsak “indarrezko-alkandora” bat izango direla, murrizketa sozial gehiagoren atariko, eta pentsio sistema publikoaren desgitea edo PPK ezarritako lan-erreforma bere horretan mantentzea ekarriko duela, besteak beste. Areago, zorra mutualizatzearen kontra daudenek Maastrichteko Tratatuak irizpideak kontuan hartzea nahi dute –azken 30 urteeta-

Zor publikoaren zama



MIKEL ZURBANO
EKONOMIALARIA

Next Generation EU programak 750.000 milioi euro aurreikusten ditu datozen zazpi urterarako. Eta aldi horretarako Europar Batasuneko (EB) aurrekontua 1,074 biloi eurokoa da. Bi hanka hauek erabiliko ditu nagusiki EBk Covid-19ak eragindako hondamendiari aurre egiteko, mutualizazioaren bidea lehendabizikoz erabilia. Zifra potoloak dira, baina bertako BPGaren %10 ordezkatzeko du. Aldiz, AEBetan BPGaren %15 da bideratuko duten baliabideen ehunekoa eta Japonian %21.

Berreskurapen ekonomikorako funts europarretatik Espainiako Estatuak 140.000 milioi ditu izendatuak, horietatik 72.000 dirulaguntzak dira eta gainerakoa maileguak. Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoak bideratuko ditu diru-laguntza horietako gehienak, baldintza zorrotzak eta konplexuak betetzearen truke. Lehen oinarriko baldintza planaren orientazioa bera da. Estatuak ezin izango dituzte beren lehentasunen arabera laguntzak izendatu, adibidez osasun sistema indartzeko. Funtsen %57 aldaketa klimatikoaren eta eraldaketa digitalaren arloetan kokatu beharko dira. Bestalde, estatu bakoitzak gomendio zehatzak bete beharko ditu funtsak eskuratzekoaren truke. Espainiako Estatuak pentsioen *iraunkortasuna* bermatzeko eta lan merkatua *hobetzeko* ohiko doikuntza lerroak bete beharko ditu.

Bestetik, Egonkortasun eta Hazkunderako Ituna gutxienez 2022 urtera arte izoztuta dago. Baina berriz ere indarrean ipiniko balitz eskuraturako funtsen laurdena galtzeko arriskua legoke. Espainiako kontu publikoak Bruselak ezarri ohi duen defizit eta zorraren arauetik oso gaineretik egongo dira datozen urteetan. Europako Batzordearen estimazio baten arabera 2021 eta 2022 urterako Espainaren defizita %9,6 eta %8,6 izango dira, hurrenez hurren. Itunaren %3ko marratik oso urrun dago eta doikuntza politiken arriskua bistaratzeko du honek.

Zor publikoak ere igoera bikaina izango du Estatuan, BPGrekiko %119 izateraino iritsi da eta aurreneko datoren urtean ez dirudi jais-teko bidea hartuko duenik, Egonkortasun Itunaren %60ko betekizunetik izugarri aldentuta. Airef, zerga autoritateak aurreikusten du Estatuak zorra berbideratzeko zerga doikuntza bi hamarkadaz luza daitekeela eta defizitaren kasuan hamarkada bat. Horiek horrela zor publikoaren zama oso latza izan daiteke datozen belaunaldientzat baldin eta zerga erreformaren bideari ekiten ez bazaio. Horretarako irauli egin beharko da 2007 urteaz geroztik Espainiako Estatuan zergen egiturak hartu duen noranzkoa. Izan ere errekaudazioan PFEZaren eta BEZaren pisua handituz joan da, Sozietateen gaineko Zergarena orduko errekaudazioaren %22,3tik 2019ko %11,9ra gutxitu den bitartean.

ko Europa neoliberalaren hazia izan zena–, Alemaniako Banku Zentralak (Bundesbank) bere azken buletinaren eskatu bezala. “Ondoren gogoraziko digute gure aukeren gaineratik bizi garela eta gehiegizko zor publikoari aurre egiteko doikuntza politikak ezinbestekoak direla”, azaldu du ELAko Pello Igerregik *Galde* aldizkarian.

Ikusteko dago pandemiak kapitalaren eta lan-indarraren arteko antola-

keta sozial berri baterantz eramango ote gaituen, baina oraingoz eskema zaharrak baino ez dira errepikatzen ari, trantsizio ekologiko eta digitalaren banderapean. Aitzitik, “estraktibismoa ezin da banandu kapitalismo berde deituriko horretatik”, dio LLonchek, eta horrek larrialdi klimatikoa larriagotzeaz gain, austeritate eta prekarietate gehiago baino ez die ekarriko hurrengo belaunaldiei. ●

NAFARROA

Berdez
mozorrotutako
betiko
hazkundera
 XABIER LETONA BITERI

Suspertu planaren arabera, Nafarroako Gobernuak 125 proiektu aurkeztuko ditu Europako funtsetara, 3.419 milioi euroko kostuarekin. NUPeko ikerketa baten arabera, baina, Nafarroak 417 milioi euro eta 1.000 milioi euro artean jaso ditzake funts haue-tatik.

Aldaketa klimatikoa, trantsizio energetikoa, digitalizazioa, ekonomia susper-tzea, lurralde egituraketa... hori guztia da planaren oinarrian; "sektore publi-koak gidatua", baina dagoeneko CEN Na-farroako Enpresarien Konfederazioari proiektuen aholkularitzan leku handia emanez.

Gaitza da sinestea plan honek mundu jasangarriaren oinarriak jarri behar di-tuenik, batez ere orain arte hondamendi klimatikoa ekarri duen sistema laudatu

besterik egiten ez delako, kritikarik txi-kiena ere egin gabe. Aitzitik, Suspertu planaren aurkezpenean María Chivite lehendakariak eredugarritzat jartzen ditu Nafarroan azken 60 urteetan ekono-mia bultzatzeko egin diren ahalegin eta planak. Hau da, "lehen ondo egin genuen eta orain ere egingo dugu". Orduan, nola iritsi gara egungo hondamendira?

Adibidez, 817 milioi euro bideratuko dira lurralde kohesiorako, baina hauen barruan daude AHT edo Nafarroako Ubi-dea -Itoizko Urtegiari lotua-, proiektu zaharrak, suntsitzaileak eta jasangarri-tasunarekin zerikusi gutxi dutenak.

Beste eremu bat da jasangarritasuna eta energia berriztagarriena, 593 milioi euro bideratuko dira esparru horietara, non auto elektrikoa, energia parkeak -eguzkia eta eolikoa- eta elikadura jasan-garria diren hiru esparru nagusietakoak. Baina inon ez da esaten auto kopurua murriztea ezinbestekoa dela energia gu-txiago kontsumitzeko; ezinezkoa dela egungo auto kopuru bera edo gehiago, baina elektrikoan. Edo elikadura jasan-garria bai, baina hor dago Caparroso-ko behitegi proiektua, 3.600 behitik 7.000ra handitu nahi dena -eta enpresa berak Sorian 20.000koa egin nahi du-.

Gaur egun Nafarroan kontsumitzen den energiaren %20 da berriztagarria, 2030erako %50 izatea nahi da, eta ho-rretarako eguzkiaren eta energia eoli-koaren dozenaka parke egitea aurreikus-ten da ekosistema eta biodibertsitatean berriz ere kalte handiak eraginez. Orain arteko "hazkunde jasangarriaren" lo-

gikan, Manu Aierdi Garapen Ekonomi-korako kontseilariaren doinua ezaguna egiten da: "Edozer ez, baina hil ala biziko kontua bada [planetaren tenperatura jaistea], prest egon beharko dugu ingu-rumen kalteren bat onartzeko".

Berdintsu gertatzen da eremu digita-lean. Planak baditu onuragarriak diren helburuak -arrakala digitala txikitzea edo hezkuntza digitalari lotutakoak-, baina bertan aitortzen denez, bere oi-narrietakoa da 5G iraultza digitala bul-tzatzea, eta horrek energia eta material kopuru itzelen beharra du. Kontseilari-tza ia guztietan dozenaka milioi euro au-rreikusten dira hamaika proiektu digital bultzatzeko.

Diru zaparrada honek orain arte-ko kapitalismoaren beste bultzada bat ekarriko du, berdez eta berba ederrez jantzia. Arlo batzuetan eragingo ditu aurrerapenak, baina funtsean, hazkun-de ekonomiko handiagoan oinarrituta dago, eta mundu finito batean hori ezi-nezkoa da, moztorrok moztorro, eredua ez da jasangarria. ●

ARABA, BIZKAIA
ETA GIPUZKOANorabide
aldaketarik ez
 LANDER ARBELAIZ MITXELENA

Gernikan Guggenheim museoak 127 milioi, **Gasteiz kanpoaldean erraustegi bat** eraikitzeak 35 milioi, Arabako hainbat menditan **bost parke eolikok** 270 milioi, **Armiñonen instalazio fotovoltaikoak** 90 milioi, **Lantaronen biomasa plantak** 71,2 milioi, **Lemoizko Zentral Nuklear zahar-reen** 15.000 tona langostino eta izo-kinentzat haztegiak 105 milioi, **Data Center** bat eraikitzeak 117 milioi, EAE mailan **5G sarea zabaltzeak** 65 milioi edo **Euskadi Basque Country Tourism Intelligence-k** 68 milioi...

Horrelako 188 proiektu jaso ditu Eus-ko Jaurlaritzak Euskadi Next izeneko planean, Bilbo, Donostia eta Gasteizko udalekin eta Araba, Bizkaia eta Gipuz-koako foru aldundiekin adostuta. Eu-



ropako funtsetatik 5.702,6 milioi euro eskuratu nahi lituzkete horiekin, eta horrek ekarriko luke orotara 13.135 milioi euroko inbertsioak egin behar izatea, diru-laguntza edo kredituek ez baitituzte proiektuak guztiz finantzatzen.

Zahartzaroa, administrazioaren eta hezkuntzaren digitalizazioa, hirigintza, hondamendi naturalen prebentzioarako proiektu ugari aurkeztu dituzte, eta batzuek azalpena irakurrita interesgarriak badirudite ere, argia da batetik, EAJ eta PSE-k azken legegintzaldietan eraman duten norabide politikoa pauso bat gehiago direla –erraustegiak klima aldaketaren aurkako tresna gisa saltzea, adibidez–, eta EAEn ere ez da zibilizazioa kolapsora daraman etengabeko hazkundea zalantzan jartzen. Horrez gain, dirutzarik handienak eskatzen dituzten proiektuak ez dira larrialdi klimatikoaren eraginez hartutako neurriak eta asko aurreko legegintzaldietan EAJ edo PSEk beren hautes-programetan eraman arren, egikaritzea lortu ez dituzten proiektuak direla ikus daiteke.

Zerrenda hau egiteko orduan agintariak izan duten ikuspegia agerian geratzen da Lakuak aukeratutako proiektuekin egindako lehen zerrendari PwC kontsultorak erakargarritasuna irabazi asmoz egin zizkion gomendioen dokumentu konfidentziala eskuratu du ARGIAk, eta bertan ikusten da lotsa izpirik gabre Bilboko Zabalgarbi erraustegian bigarren lerroa, AHTren zatiak edo Super Sur saihebidetaren bigarren puska eraikitzeko ere baliatu nahi izan ziztuztela, besteren artean klima aldaketari aurre egiteko diren mailegu hauek. Aipatu berri ditugun hiru hauek zerrendatik kendu badituzte ere –beste nolabait bideratzen saiatzeko–, atzean dagoen filosofia politikoa bera dela agerikoa da. Horrez gain, argi ikusten da foru aldundietan eta hiriburuetan, oposizioak proiektu hauen aukeraketan izan duen zeresan txikia, eta askotan ere, daukan informazio falta.

Pisu ekonomiko handiena duen proiektua **Hidrogenoaren Euskal Korridorea-BH2C** da. 1.144 milioi euroko proiektua da eta funtsetatik 220 milioi eskuratu nahi lituzkete Petronor, Repsol eta Sener gisako enpresekin elkarlanean aritzeko. Helburua hidrogenoa eta erreagai sintetikoak produzitzea, eta hauen erabilera sustatzea da.

Nabarmentzen den bigarrena **hirietako “auzorik kaltetuenetan” berroneratze edo ‘erregenerazio’ urbanoak**



egin asmo dituen proiektua da. 1.130,4 milioi euroko gastua egin nahi luke Jaur-laritzak. Enpresa pribatuekin elkarlanean, “errekuperazio ekonomiko sostengarri, uniforme eta inklusiboa bultzatu nahi luke, eremurik kaltetuenetan. Honekin lortu nahi da hirietan esku-hartze-ko modu berri bat, erregenerazio urbanoak bultzatuz”.

Eraikuntza enpresentzat beste proiektu nagusia bat, **lurzoru industrialeen berroneratze edo erregenerazioa** egin asmo duena da. Horretarako 885 milioi euro aurreikusituz, eta Europarako diru laguntzak lortzeko amu gisa, PwCren aholkuei jarraiki, Jaur-laritzak adierazi du leku horietan “proiektu estrategikoak” kokatzeko lan egingo duela.

Auto elektrikoetarako ioi eta litiozko bateriak egiteko **BasqueVolt Gigafactory** proiektua Iberdrola, Petronor, Enagás, Irizar eta MCC-rekin; zahartzaroarekin loturiko **“zaintza ekonomiak”** (282 milioi) edo **OsasunBerri** (199 milioi),

besteak beste, eta formazioaren atalean **Donostia Talent House**, nazioarteko “talentudun” pertsonak erakarri asmoz (12 milioi), eta Bilbon ekintzailetzarekin loturiko **Zorrotzaurre Ekintzaile Gunea** (20 milioi) eta BBVArena zen **Bizkaia Dorrean Nazioarteko Ekintzailetza Zentroa** (36 milioi) gisako proiektuak aurkeztu dituzte. Mugikortasunarekin **Bilboko metroaren 5. linea**, Sarratu (Basauri)-Galdakao eta Usansoloko ospitalearen arteko tren konexioa (350 milioi) edo **Vitoria-Gasteiz Mobility Lab** (327,5 milioi), besteak beste, kulturarekin zuzenean loturiko proiektuak, hutsaren hurrena dira argazki orokorrean, izan **Euskadiko liburutegi digitala** (2,9 milioi), **museoetako zerbitzuak digitalizatzea** (2,9) edo Euskal Artea dokumentatzeko eta ikertzeko **Arteder proiektua** (1,9). Azkenik, Donostiako **hoteletan auto elektrikoaren kargadoreak** jartzeko proiektua aurkeztu du Donostiako Udalak. ●

AHALDUNTZEA

"Apalago ikusten dituzun ikasleak bat-batean ahaldundu egiten dira antzerkigintzan, esaterako rol boteretsu bat egokitzen zaienean".



“Antzerkiaren bidez ikasleak deskubritzen ditu barruan daramatzan beste rol batzuk”

Debagoienako zazpi ikastetxetako 400 bat ikasle oholtzara igotzen ditu ikasturtero lurgi Etxebarria aretxabaletarrak. Hamar urte daramatza haurrei antzerkigintza irakasten eta esperientziak erakutsi dio zeinen baliagarria den antzerkia norbere burua ezagutu eta rolak apurtzeko, lotsak eta beldurak gainditzeko, gorputza ulertu eta emozioak lantzeko, sormena eta talde-lana indartzeko...

 MIKEL GARCIA IDIAKEZ  DANI BLANCO

Hogei urtez Kukubiltxo antzerki taldean aritu zinen. Zergatik eta nola eman zenuen saltoa hezkuntza mundura?

2010ean, herriko eskolan eskatu zidaten antzerki tailerrean laguntzeko, eta herriko enpresa batean ere ikastaroa eman nien langileei. Gustura aritu nintzen, eta pentsatu nuen antzerkiak niri emandako jakintza eta alaitasuna transmititu nahi nuela. Gainera, etxean bi izatetik bost izatera pasa ginen urte gutxian eta Kukubiltxoko jarduna oso lotua zen. Bailerako ikastetxe eta udalekin harremanetan jarri nintzen, eta horrela sortu zen lufala!! proiektua, eskoletan antzerki ikastaroak eskaintzeko.

Ikasleei antzerkiak zer irakasten dien azaldu aurretik, zuri zertan lagundu dizu?

Pertsonen jokamoldeak hobeto ezagutzen eta ulertzen lagundu dit. Txikitan jaso nuen hezkuntza kristauak zurrin markatzen zuen jokamolde onak eta txarrak zeintzuk diren, pertsona onak eta gaiztoak, eta epaitzeko joera hori oso barneratua nuen. Halako batean, Bilbora joan nintzen antzerki-eskolara, eta epaiketa horiek guztiek zentzua galdu zuten, antzerkian ez dugulako gure pertsonaia epaitzen, pertsonaia dena delakoa izanik ere berau ulertzen ahalagindu behar dugu, nolabaiteko asertibitate eta enpatia garatzen dugu pertsonaiarekiko. Gainera, irudimenarekin lan egiteak ere horretara eramaten du: Kukubiltxon oso ezberdinak ginen izaeraz eta antzezlanaren edota pertsonaien inguruan sortzen ziren eztabaidak, jarrera batzuk eta besteak, oso aberasgarriak ziren.

Pertsonaien rolekin jolasteak zein eragin du ikasleengan?

Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako gazteekin aritzen naiz (10-12 urte ingurukoak, hogeitaz astero ordubete),

eta rol jakin bat izan ohi dute ikastetxean, baina antzerkigintzan rol horiek aldatu egiten dira, ikasle bakoitzarena, eta baita talde moduan ere. Hasieratik adibidez neska-mutil muga apurtzea ezinbestekoa da, bestela beti dituzu neskak alde batetik eta mutilak bestetik. Gure antzezlanetan ez dago protagonistarik, denek dute antzeko protagonismoa, eta gidoia ez dago bukatuta, norberak eraikitzen eta osatzen ditu pertsonaia eta ibilbidea: jasotzen duten informazioa da pertsonaiaren adina, antzezlanean duten papera (itsasontzian badaude, kapitaina den, marinela...) eta pertsonaiaren egoera, baina pertsonaiaren sexua eta sexu-joera adibidez beraiek aukeratzen dituzte. Besteak beste transexual izan daitezkeela azaltzerakoan, garai batean ohiko galdera izaten zen, “zer da hori?”, baina belaunaldi berriek naturalago hartzen dute eta batzuek bizitza errealean duten rola eta sexua aldatzea erabakitzen dute antzezlanean. Norberaren pertsonaiak duen rolaz gain, klasean rol eta sentimendu ugari lantzen dute ikasle guztiek, gainerakoen aurrean banan-banan: lotsa, beldurra, haserrea...

Hau guztia baliagarri zaie norbere burua ezagutzeko, besteei ezagutarazteko eta ingurukoena berrezagutzeko. Egunerokoan lider izatera ohituta da-

“Gure antzezlanetan denek dute antzeko protagonismoa, eta gidoia ez dago bukatuta, norberak eraikitzen eta osatzen ditu pertsonaia eta ibilbidea”

goena agian kikildu egiten da oholtza gainean, edo tontoarena egiten hasten da, eta beste ikasketa eta arlo batzuetan apalago ikusten dituzun ikasleak bat-batean ahaldundu egiten dira antzerkigintzan, esaterako rol boteretsu bat egokitzen zaienean. Aurten ikasle oso xumea daukat, kapitainaren papelean, eta gelako liderrari (marinel papelean) aginduak eman behar dizkio. Tutore baten testigantza ere gogoan daukat; kontatu zidan ikasle uzkurra hazi egin zela ikastaro honi esker, eta ordutik beste ikasgaietan ere aurrerapenak egin zituela.

Oholtzan banan-banan antzeztzen jartzen dituzula diozu. Beti ez da erraza izango lotsei eta beldurrei aurre egitea...

Eszenatokira ateratzen gara ongi pasatzera, hori oinarrietako bat da, eta horregatik besteak beste antzezlanerako ikasi beharreko testua izugarri murriztu dut urte hauetan: hiru esaldi baino ez dituzte memorizatu behar, gainerakoa eurek sortzen eta asmatzen dute, buruz ikasi beharrak blokeoa ekartzen zuelako.

Bestalde, lehenengo egunetik nabarmentzen dudana esaldia da gure ikastaroan ez dagoela akatsik. Eszenatokira igotzean akatsen bat egingo dugula pentsatzeak dakartza beldur eta lotsak, besteak epaitu egingo gaituztela barneratua dugu, baina ikastaroan ariketa ugari egiten dugu kontrako norabidean: testua ahaztu duela norbaitek? Ipurdi-bistan utzi ordez, gazteek ikasten dute nola jokatu aurrera segitzeko, elkar-laguntzeko, testu berria asmatuz, ahaztu duenaren testua beste norbaitek esanez, testua aipatu gabe aurrera jarraituz... Horretarako, inprobisazioa eta irudimena lantzen ditugu, eta ulertzen dute norbera “helmugara iristeak” ez duela ezertarako balio, besteren bat bidean geratu bada. Denok batera egin behar dugu aurrera eta denok batera iritsi behar dugu amaierara, antzezlanean.



Taldea inportantea da, hortaz.

Entseguetan joaten dira ikusten inork ez dituela epaitzen, ez dietela barre egiten, testua ahaztuz gero besteen laguntza izango dutela... eta talde-konfiantza garatzen da, elkarren arteko konfiantza eta babesa. Amaren rola betetzen duen ikasleak eta seme-alabarena betetzen duenak oholtzan besarkatzea lortzeko, konfiantza beharrezkoa da. Hain juxtu, pandemia dela-eta gai honi lotutako ariketa ugari sakrifikatu behar izan ditut, kontaktu fisikoa dagoelako tartean, eta beste modu batzuetara nabil lantzen, baina behar bezala ez jorratzea nabaritutako da, nik uste.

Kontaktu fisikoa aipatu duzu. Gorputza bera oso presente dago antzerkian, hezkuntzan oro har zerebroak daramanean protagonismo osoa.

Nahiko tabua da gorputza adin horretan, eta gainera denek dakite urte gutxiren bueltan aldatetako izango dituela euren gorputzak. Konplexuak dituztela nabaritzen badut, adibidez bularrak hazten hasi zaizkiolako kokilduta badago, sorbaldak igo eta beldur barik agertzera animatzen dut, ez dadila lotsatu. Gorputzaren artikulazio, mugimendu eta aukerak lantzen ditugu, gorputzak duen adierazkortasuna, eta atal jakinetan (ipurdia, bularraldea...) barretxoak entzuten dira, baina ni naiz aurrena gorputzaren bidez postura guztiak hartzen dituen eta era guztietako aurpegiak jarri, ikasleen aurrean. Fabrikako

langileak makina darabilen moduan, gu geu gara makina antzerkigintzan, guk maitatu eta zaindu behar dugu makina hau eta ezagutu behar dugu makina honek dituen baliabide eta aukera guztiak.

Gorputzaren memoria ere hitz egiten diet. Bizikletan edo sokasaltoan aritzen garenean, automatikoki dakiela gorputzak nola erantzun, aurrez egindakoa memorian gordetzen duelako.

Gorputzaren jarrerak berak salatzen du zein rol dugun egunerokoan, eta hori jorratzeko ariketa interesgarria egiten dugu. Ikasteko antzerkian ikusleei begiratu behar diegula, gorputza ikusleengana zabaldu behar dugula, ikasleak ibiltzen hasten dira oholtza gainean eta zintzarria jotzen dudanean aurrera begira jarri behar dute, baina non eta nola gelditu diren oso esanguratsua izaten

da. Batzuk gelditzen dira taldekideen atzean erdi-ezkutuan, beste batzuk aldiz lehen lerroan eta gorputzarekin gainerakoak estaliz. Kontzientzia hartzen dute zertara daramatzen beren gorputzak, ezkutatzera edo besteak estaltzera, eta ikasten dute taldekide guztiei euren espazioa utzi behar zaiela, maila berean agertzeko. Buruarentzako izugarria da hau, kalean jarrera horietan errepikatzen direlako eta ariketa honekin jabetu egiten direlako horretaz; gorputzaren bidez protagonismoa nola partekatu barneratzen dute, gutxienez antzerkian.

Zenbateraino da antzezlan itxia eta zenbateraino hartzen du parte ikasleen irudimenak?

Gidoian elkarriketen hasierak baino ez dira agertzen, hiru esaldi denera, eta ikasleek eurek osatzen dituzte elkarriketak. Ez epaitzearen ideia funtsezkoa da honetan ere, norbaitek ideien bat botatzen duenean erreakzioa ez dadin izan "a ze astakeria bota duena" edo "ideia hori txarra da". Antzerkian dena da bai, proposamen guztiak onartzen ditugu, probatzen ditugu, eta joango gara ikusten antzezlanen txertatuko ditugun, aldatu behar ote diren edo ez duten funtzionatzen. Beti ez da samurra zenbait ideia bideratzea, umeen irudimena helduona baino askeagoa delako, urrunago iristen dira, baina merezi du ideia oro entseatzeko eta probatzea, gero bere pisuz jausiko da antzezlanetik, indarririk ez badu.

“Eszenatokira igotzean besteek epaitu egingo gaituztela barneratua dugu, baina lehenengo egunetik nabarmentzen dut: gure ikastaroan ez dago akatsik”



Emozioak eta sentimenduak lantzeko ere balio du antzerkiak.

Jakina, eta emozio intentsuak bizi dituzte gainera, elkarri laguntzeko prozesu horretan, adibidez. Normalean ihes egiten dute tristezia edo lotsa bezalakoak interpretatu behar izatetik (haserrea aldiz gustura antzeztzen dute), baina egiten dutenean deskubritzen dituzte barruan daramatzagun beste rol batzuk, garatu beharrekoak. Sentimendu guztiak dira garrantzitsuak, ez dira alboratu behar, eta halako baloreak lantzeko baliatzen dut ikastaroa.

Antzezlaren gaia ere baloreak lantzeko baliatzen duzu?

Irakasleek eurek esan izan didate: "Baina antzezlari honetan ez da balore jakinik bultzatzen". Gaian ez, baina prozesuan bertan asko: protagonismo partekatua, rolen apurketa, elkarri laguntzea aurrera egiten... Nola ez dela balorerik bultzatzen! Garai batean antzezlaren gaia baloreren batekin lotzen nuen, baina segituan konturatu nintzen ez zuela funtzionatzen, gaiak eta pertsonaia batzuek protagonismo gehiegi hartzen zutela eta gainerako guztia estaltzen zutela. Artifiziala da: bullyingari buruzko antzezlana baino eraginkorragoa da entseguetan bullyinga antzemanaz gero ariketen bidez aurrera egiten saiatzea.

Nola eragin du pandemiak klaseotan?

Eragina izan du, ezinbestean, baina aldaketa positibo bat aipatzearren, ahotsa-

rekin egiten duten ahalegina handitzea ekarri du: hobeto ahoskatzea, altuago hitz egitea, ahotsa lantzea... eragin du maskararen erabilerak, eta lanketa hori geratzeko etorri da.

Entseguen emaitza: emanaldia jendaurrean.

Hasieran ez nuen emanaldirik egin nahi, klaseetan gauzak lantzeko denbora kendera duko zigula uste nuen, baina irakasleen ekarpena izan zen, nolabait ikasleek zentzu bat eta helburu bat emateko ikastaroari, eta arrazoi zuten: katarsi unea da. Ikasle guztiek, bakoitza bere pertsonaia, ekintza bat ospatzen bukatzen dute eszenatoki gainean. Emozionatuta amaitu ohi dute, elkar hartuta, garrasi betean. Jendaurrean aretara salto egi-

“Kontzientzia hartzen dute zertara daramatzan beren gorputzak, besteen atzean ezkutatzera edo besteak estaltzera, eta ikasten dute taldekide guztiei euren espazioa utzi behar zaiela”

“Umeen irudimena askeagoa da, urrunago iristen dira, baina merezi du ideia oro entseatzea eta probatzea, antzerkian dena da bai”

tea eta fokupean aritzea bada presioa, baina urte hauetan guztietan, bi-hiru aldiz baino ez zait gertatu ikaslea aulkian jaiki ezinik geratzeko, ezin oholtzara aterara. Eta gertatu den bi-hiru aldi horietan ere, inork ez dio ezer leporatu ikasleari; alderantziz, lasai egoteko esan diote, moldatu direla eta aurrera atera dutela antzezlana.

Urte hauetan ikasitako guztia biltzen ari zara.

Ikastaroan egiten ditudan lanketak eta ariketak ari naiz jasotzen, ondoren Apropox.com webgunean zabalatzeko eta nahi duen hezitzaileak edo dena delakoak aprobetxatu ditzan. Horrez gain, ikastetxeetan bakarrik ez, enpresetan, eta herritarrei oro har antzerki ikastaroak eskaintzea da asmoa. Psikodrama ere ematen dut, arazoak eszenara eramanez taldean egiten den terapia. Sinetsita nago interpretazioari esker gauza asko ikasi dezakegula.

Zurea da aldarrikapena: “Euskal Herriko ikasle guztiek antzerkiaren beharra daukate”.

Eta horregatik uste dut antzerkia Magisteritza Eskolan lantzen aritu beharko ginatekeela, irakasle izango direnek txertatu dezaten etorkizunean, edozein ikasgaitan erabili daitezkeen teknikak direlako; arazoei aurre egiteko erramintak ematen ditu antzerkiak. Ikastetxe batzuetan lantzen da, baina guztietara zabaltzeko beharreko zerbait da. Garapen pertsonala lantzeko, besteak beste. Gustatuko litzaidake jakitea ikastaro hauek jaso ostean ikasleengan aldaketarik nabaritu al duten irakasleek, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzara iristen direnean. Nik baietz pentsatu nahi dut, baliagarria zaiela, horregatik jarraitzen dut honetan. ●

SIRIAKO KURDUEN ERRONKA ZAILA

Zer egin ISISeko milaka kide ohiekin?

Duela ia bi urte amaitu zen Daesheko Kalifatoa, baina erakunde horretan ibilitako milaka lagunek Siriako ekialde eta iparraldean jarraitzen dute. Kurduak gidatutako proiektu politikoak arazo larria du beste inork jaso nahi ez dituen pertsona hauek kudeatzen.

 AITOR ASPURU

2019ko martxoan Siriako Indar Demokratikoek (jatorri kurduko YPG eta YPJ taldeek sortutako erakundea) bukatutzat jo zuten Estatu Islamikoaren Kalifatoa bere azken gotorlekuan, Baghouz hirian. Diktadura horren desagiteak, ordea, sekulako giza hondamendia utzi du kurduak eraikitako institutuzio autonomoetan, Siriako iparralde eta ekialdeko Autoadministrazioan.

Milaka borrokalarri jihadistak pilatu dira Siriako iparraldeko bost espetxetan. Hain zuzen, preso kopuru aldetik munduko batezbesteko xumeenak izate-tik –San Marinokoen antzera–, kartzelak goraino beteta izatera pasa da Rojava eskualdea. Baina larriagoa da Daeshen oinarri sozialaren eta eragindako errefuxiatuen patua. Rojava Information Center kazetari taldearen arabera, Al Hol kanpalekuan –Hasakako probintzian– 65.000 lagun baino geratu dira harra-patuta. Horietako 30.000 irakiarrek dira

eta 10.000 lagun han ziren Kalifatoaren gainbehera gertatu baino lehen. Beste 25.000 siriar jatorrikoak dira eta gainerako 10.000 Europa, Asia, Afrika edota Ameriketako zenbait herrialdeetatik hel-du ziren.

Zehazki, eremuko biztanleen erdia 12 urtetik beherakoa da eta bost urte baino gutxiago du laurdenak. Siriarrak eta irakiarrek ez diren artean, %65ak ez ditu 12 urte bete. Azpimarratzeko modukoa datua ere bada kanpalekuan ez daudela errefuxiatuak bakarrik, Estatu Islamikoarekin lotutako 20.000 lagun inguru daude, emakumezkoak eta umeak, gehienbat.

Rojava Information Centerrek ohartarazi duen moduan, askok uste du Al Hol bilakatu dela Estatu Islamikoaren akademia, non emakumezkoek ideologia jihadistak umeen artean zabaltzeko baliatu duten, terroristen belaunaldi berria bermatzeko. Horietako batzuek aurretik zituzten ardura berak hartu zituzte, eta horrez gain, Hisba indarrean dago, hau da, “morala

zaintzeko” ardura duen Kalifatoaren Polizia. Euren jardura nabaria da eta hilketak eta erasoak egin dituzte zenbait biztanleren aurka. Horri gehitu behar zaio Daeshen talde batzuk aktibo daudela Al Hol kanpaleku barruan eta 2021ean jada sei pertsona erail zituztela, gutxienez. Esaterako, urte hasieran segurtasun indarrek islamista susmagarri bat inguratu zutenean, bere burua zartatu eta Asayish auto-defentsa taldeko kide bat hil zuen.

Egoera ez da ezohikoa, ISIS-ek atentatuak ugartu ditu ia Siria osoan. 2020ko abenduaren amaieran Siriako erregimenaren 30 paramilitar hil zituen basamortuan egindako segada batean eta SDFren kontrolpeko lurraldean zazpi lagun hilez hasi du urtea. Hala ere, bere egitura zibilaren egoera da biziki larria dena kurduak eraikitako ipar eta ekialdeko Sirian.

AEBek, hainbat herrialderekin batera, 2014an sortutako Nazioarteko Koalizioak hegazkin eta arma ugari baliatu zituen Estatu Islamikoaren milizianoak





Baghouzeko
batailaren ondorioak.

ARGAZKIA: STRIGE BLOG

bonbardatzeko Sirian eta Iraken, baina bitarteko nahikorik ez du jarri muturreko islamismoaren zutabe ez armatua desgiteko; azpiegiturak ez dira nahikoak eta erradikalizazioaren aurkako programak oso mugatuak dira, ez baitago dirurik horretarako. Human Rights Watch gobernuz kanpoko erakundearen arabera, siriarren %80a txirotasunean bizi da eta ogia eskuratzeko ilarak eta zailtasunak handitu dira ia leku guztietan. Gainera, hainbat hiri eta herri txikituta daude oraindik.

Nazioarteko gaitan aritzen den Sara Ainhoa de Ceano-Vivas kazetari madrildarrak denboraldi luzea eman du Sirian. Bere hitzetan, kurduen kontrolpeko lurraldean herritarrek etsipenez ikusten dute egoera: “Jendeak barneratu du ez dagoela beste irtenbiderik. Daesheko hainbat kide askatu dute tribu arabiarren bermeekin eta akordioen bidez, baina, milaka atxilotuta daude. Etsipena eragiten du bitarteko gutxi egoteak eta dauden apurrak eurei bideratu behar

izateak. Amorrua ere badago, bereziki, nazioarteko komunitatearekiko, inork ez baitu bere gain hartu nahi kanpoko herritarren ardura. Siriatik kanpokoak dira, oro har, erradikalenak. Ideologizatutik heldu ziren Kurdistanera eta Siria-ra, euren jatorrizko gizarteetan sufritzen zuten arrazakeriaren ondorioz. Orain siriarren arazoa dira, laguntza ekonomikorik ere ez baitago”. Daesheko hainbat kide askatu dituzte Raqqa edo Deir Ez-Zor zonaldeetan tribu arabiarren bidez. Klan arabiarretako buruek euren gain hartu dute preso ugariren ardura. Krimen odoltsuak egin ez dituzten tribukide horiek bizitza zibilera itzuli dira eta klanetako *sheik* edo buruek bermatu behar dute Estatu Islamikora ez direla itzuliko. Hala ere, EI-n parte hartu duten milaka atxilotuta daude oraindik.

Kazetariak azpimarratu du jende hori guztia “linboan” dagoela: “Nazioarteko komunitateari eskatu zaio epaitegia osatzeko Sirian gertatutako krimenak argi-

tzeko, baina ez da urrats errealik egin. Gainera, irakiar askok ez du euren herrialdera itzuli nahi, Irakeko Gobernuak heriotza zigorra ezarriko lioketelako eta Siriako ipar eta ekialdeko Autoadministrazioa horren kontra dago”.

ESPETXEAK GAINEZKA

Daesheko militanteak kudeatzeko dauzkaten tresnen urritasuna azpiegituren gainpopulazioan islatzen dira. Hasakan Estatu Islamikoko 100 kide dauzkate builduta geletan eta dagoeneko hainbat matxinada gertatu dira. Kobane hiri kurdan ere talde horretako 20 preso dauzkate elkartuta ziega bakoitzean. Gainera, preso erradikalak eta Kalifatoari uko egiteko prest daudenak batera daude eta ezinezkoa da beren artean ezberdintzea.

Al Hol kanpamentuan egoera ez da hobeia. Horrek guztiak hiru ondorio ditu: zerbitzu kaskarrak, arreta mediku traketse eta bizi baldintza txarrak. Datuak adierazgarriak dira: 2019an 500 lagun



Goian, Al Hol kanpalekua. Behean, Siriako Emakumeen Kontseiluaren mintegi bat Al Holen, Daesheko emakumeekin eztabaidatzeko.

zendu ziren kanpalekuan gabezia materialak direla medio eta, larriena, horietatik 371 umeak ziren.

GIZARTERA ITZULTZEA, AUKERA ZAILA

Berez, jihadean parte hartu duten pertsonak gizarteratzea da irtenbideetako bat, baina, momentuz, ez da bideragarria baliabide faltagatik. Adibidez, 2017an Huri zentroa ireki zuen Autoadministrazioak Qamishlon, baina mota horretako ekimen bakarra da. Egoitza horren helburua da Estatu Islamikoak borrokatzeko edo eraso suizidak gauzatzeko trebatu zituen gazteak artatzea. Hango langileek onartzen dute betebeharrak zaila dela eta

askok Rojava Information Centerri aitortu zion, hasieran, emakumezkoak diren begiraleei nerabeek ez dietela aurpegira begiratu ere egiten: “Daeshen ideologia oso misoginoa da, baina denboraren poderioz emaitza positiboak lortzen dira”.

Edonola ere, Huriko langileek aipatzen dute esku-hartzea errazagoa dela siriarrarekin, asko dirua lortzeko helburuz batu zirelako jihadera.

DAESHEKO KIDE ATZERRITARRAK, KORAPILOA

Irakiarrak edo siriarrak noizbait euren komunitateetara itzultzeko itxaropena badago ere, beste herrialde batzuetatik

Siriara joandako jihadistak –asko emakumeak– dira argitu gabeko zama kurduen Autoadministrazioarentzat. Frantziako Estatuak, Austriak, Errusiak edo Asia erdialdeko hainbat estatuk umeak herriratu badituzte ere, ez dute ezer jakin nahi milizianoei –2.000 espetxeratu– edo emakume helduei buruz.

Borrokalari izandakoen kasuan, hainbat estatutan eztabaida itxita dagoela dirudi, baina emakumeena ez. *Arian komandantea* –YPJ talde kurduko ofizial baten bizitza kontatzen duen pelikula, ARGIAren multimedia kanalean ikusgai dena euskarazko azpidatziekin– estreinatu ostean, Alba Sotorra zinemagileak *The return* filma egin du. Lan horretan Estatu Islamikoan aritutako hainbat emakumeren historia azaldu du. Sotorrak eurekin bizitzeko parada izan zuen Roj Camp-en eta erradikalizazioari aurre egiteko prozesuan sartuta dagoen emakumezko talde bat grabatu zuen han.

Shamima Begun britainarra oso ezagun egin zen El-ren aldeko militante izateagatik. Badaude hain ezagunak ez direnak ere, baina guztiek aztertu dute beren ibilbidea kamera aurrean. Kasu batzuetan biktimak sentitzen dira eta beste batzuetan engainatu egin zituztela diote. Badira bidaia horretan lagunak, senarra edo seme-alabak galdu dituztenak edo zapalkuntza matxista argi eta garbi sumatu dutenak. Esperientziak esperientzia, desio batek batzen ditu: etxera itzultzea.

Tamalez, Roj Campekoek ez bezala, Al Hol kanpalekuan geratu den askok ez du modu kritikoa berrikusi bere parte-hartzea Kalifatoan. Esaterako, Popular Front komunikazio independenteko ekimena zuzentzen duen Jake Hanrahan kazetariak, Karibeko bi emakumezko elkarrizketatu zituen bere podcastean. Besteak beste, “te festa” baten moduan gogoratzen zuten jihadistek Estatu Islamikoaren egunerokoa. Sentimendu kontraesankorrekin amaitu zuen solasaldi gogor hori kazetari britainarrak: “Bukatzean amorrua eta pena sentitu nituen, baina euren ekintzek sufrimendu handia sortu zuten eta ezer egin izan ez balute bezala jokatzeko zuten”.

Emakume yezidiei buruz –kurduen komunitate etniko-erlijiosoa– egindako galderari Daesheko kide ohien erantzunak bereziki asaldatu zuen kazetaria: “Aipatu zuten yezidiek gogoko zutela esklabo izatea. Emakume yezidiak bahitu, bortxatu eta saldu egin zituzten. Puntu horretan nazka sentitu nuen. Ez ziren egindakoa-gatik damu, inondik inora. Beldurgarria da norbaitek hori gustuko zutela esatea”. ●

ETORKINAK IRUN ETA BAIONA ARTEAN

Bidean geroz eta traba gehiago dituztela, kosta ahala kosta, aitzina doaz etorkinak

COVID-19ak beharturiko konfinamenduak eta etxeratze aginduak, eta horiei gehiturik Ipar eta Hego Euskal Herriaren arteko errepideen hesteak zein kontrolatzeak... errealitate bortitza are bortitzagoa bihurtu zitzairen 2020 urtean migratzaileei. Maleruski, egoerak ez luke hobera egin behar 2021ean. Zergatik? Harrera bermatu beharrean, kanporatze politikak garatuz dabiltzalako Bruselako, Parisko zein Madrilgo agintariak. Irun-Baiona etapari so jarri gara, gurean dituzten oztopo eta baita elkartasun printzak ere ezagutzeko.

 JENOFA BERHOKOIRIGGIN  DANI BLANCO

Ez dakigu zer kausituko dugun bidean, bagoaz aitzina... Frantziara iristeko xedea dugu, eta ahal bada Alemaniarantz segituko dugu". Irungo San Joan plazara heldu berri den bolikostar gaztearen hitzak dira, familia, lagunak eta guztia gibelean utzirik, bidean denarenak. Bezperan ezaguturiko Maliko eta Gineako beste lau gazterekin da, eta gaua Gurutze Gorriaren aterpetxean pasaturik Irungo Harrera Sarekoek emandako hitzordura hurbilduak dira. Goizero 10:00etatik 12:00etara San Joan plazan dira herritar sare horretako boluntarioak, etorkinei harrera goxoa, laguntza eta aholkuak ematen ari. 2018az geroztik 15.000 etorkin dituzte lagundurik, 2.000z gora iazko urtean.

Ondoko geldigunea Baiona izanen dutela badakite, nahiz eta ordura arte sekulan ez zuten Baionaz ezer entzuna. Bidasoaz beste alde horretan kausituko dute beste laguntzaile sare bat; eta Pausa izeneko geldigunea ere ukanen dute egun pare batez indarrak hartzeko gune.

Frantziako Gobernuak horrela erabakirik, Ipar eta Hego Euskal Herriaren arteko pasabide batzuk hetsita ditugunean

eta COVID-19ak ere iaztik mugimendua eta harremantzea azkarki mugatzen digun honetan, Irun eta Baiona artean ditugun etorkinen errealitateari begira jarri gara. "Lehen konfinamenduan jende oso gutxi etorri zen, baina hala ere, segitu zuten etortzen; udan berriz gehiago etorri ziren. Gizarte guztiaren martxa bezala, gurea asko aldatu behar izan dugu, errealitate berrira moldatu behar izan dugu, segurtasun neurriak bermatzeko", dio Anaitze Agirre boluntarioak. Eta lortu ere dute, oraingoz ez duelako inork COVID-19a bildu harrera une horietan.

2018az geroztik Afrika iparraldetik Espainia hegoaldera doan bidea garatu egin da, ordura arteko beste bideak konplikatu joan direlako -Grezia eta Italiatik Europara sartzea geroz eta zailagoa bilakaturik, eta Kroaziako sarbidea ere ikaragarri bortitza izanki, azken asteetako albisteek ohartarazi diguten bezala-. Eta maleruski, irekitzen den bide berria, beti da aurrekoa baino okerragoa, Agirrek ohartarazten duenez.

Azken aldi hauetan Kanaria uharteak dituzte sarbide nagusi, -eta noski egoe-

rak behaturik: hautuz inork ez lukeelako "bide hilgarrienetako" gisa ezaguna dena hartuko-. Itsasoan barrena egun eta gau luzeak pasa beharra, eta ondortik bizirik ateraz gero, uhartean *lotsaren kanpamentua* izendaturiko gunean pilaturik aste luzez iraun behar dute. Espainiako Barne ministerioaren zifren arabera, 2020an 23.000 lagun arribatu ziren bertara Afrikatik, aitzineko urtean 2.687 zirelarik. Abiaturiko guztiak ez, maleruski: 2.170 etorkin irentsi zituen itsasoak iaz, hauetarik %85ak Kanarietarako itsas-bidean, Caminando Fronteraz Gobernu Kanpoko Erakundearen arabera. "Ez dute hitz egin nahi momentu horretaz, soilik esaten dute sekulako beldurra pasa dutela. Oso gogorra da eta ez dute atzera begiratu nahi" dio Agirrek.

Amorregarriena, Estatuen arteko joko politiko batzuen ondorioa dela: "Maroko kostaldean dago migrazio polizia. Segun eta zein egoeratan dagoen Maroko eta Europatik zer lortu nahi duen, kontrolak malgutzen edo gogortzen ditu. Orain malgutzeroa doa, zeozer lortu nahi duelako". Hots, pareko Estatua presionatzeko



IRUNGO HARRERA SAREA. GOIZERO IRUNGO SAN JOAN PLAZAN BATZEN DIRA ARRIBATU BERRIAK DIREN ETORKINAK ETA ELKARTASUN SAREKO BOLUNTARIOAK.

tresnatzat dituzte etorkinentzako hil ala biziko bideak direnak.

Ondoko etapa Irun eta Baiona artekoa dute, beldur eta zailtasun gehiago dakartziena, erdian muga administratibo bat ukanki. Iazko urtean kontrolak areagotu zituzten –polizia kopurua bikoizteko erabakia jakinarazi zuen azaroan Emmanuel Macron Frantziako presidenteari, gainera, ohiz kanpoko mugen hestea gauzatuz apiriletik ekainera ere.

Urtarrilaren 14az geroztik, berriz ere hainbat errepide dituzte hetsirik, eta ez da jakina noiz arte iraunen duen neurriak. Ofizialki, “terrorismoaren kontrako borrokarako” neurritzat dute erabaki hau. “Terrorismoa aitzakia da, gehiago da joan-etorriak eta neurri handian pargabeen mugimenduak kontrolatzeko eta mugatzeko”, dio Maite Etxeberri Cimade elkarte juristik, 2008an Hendaian irekitako atxikitze zentroan etorkinen aholkatzen dabilenak. Lehen konfinamenduan zentroa hesteko erabakia hartu zuen prefekturak, barnekoak libratuz ala beste zentro batzuetara bidaliz. Orozkoki kezkatutik begiratzen dio 2021 urteari: “Izan mugetako kontrolen areagotzearekin ala Europa mailan eztabaidaturiko legediekin, ‘oro seguritatea’

logikan gaude eta itxialdiak eta kanporatzeak bultzatzen dabilta”. Oraingoz iazko zifrarik ez da, baina 2019an 355 migratzaile atxiki zituzten bertan.

Dena dela, kontrolen areagotzeak ez die determinazioa ttipitzen immigrantei: “Saiatzzen dira, eta lortu arte saiatzen jarraitzen dute, eta horrela beste etapa bat gainditu arte”, Agirrek dionaz. Ongi laburbiltzen du errealtatea Agirrek: “Paris-Dakar guretat bost ordu badira, haientzat urteak izan daitezke”. Aitzineko astean muga administratiboa erdi hetsirik egonda ere, 25 bat Baionara heldu izana dugu horren frogara. Bistan da, denbora, dirua, beldurra, nekea eta injustizia astuna da saiakera bakoitza...

“Kontrol arrazistak” direla argi dute elkartasun sarekoek, eta are jasanezinagoak dituzte, hauek ilegalak izaten direnean; hau da, inolako notifikaziorik gabe mugaren beste aldera bidaltzen dituen Frantziako poliziak. “Legeari segi, notifikatu behar dira mugimendu horiek, horrela behintzat pertsona hau existitzen dela agertzen da nonbait, zeren eskubideak ere dauzkate: agian asilo eskaera egin dezake, agian adin txikiakoa da horrek dakartzkien eskubideekin”, Agirrek azaltzen duenez.

Konfinamenduz eta etxeratze aginduz jositako iazko urtea “gogorra” izan dela diote aho batez elkarriketaturiko guztiek. Demagun, immigranteentzako hiru egunetarako aterpe gunea den Baionako Pausa gunean gelditu behar izan zuten 115 lagunek lehen konfinamendu osoan (emakume eta haurrak hiriko beste espazio batera mugituak izan ziren, babes-distantziak hobeki errespetatzeko gisan).

Konfinamendua bukatu ondoren, Ipar eta Hego Euskal Herriaren arteko muga administratiboa berriz ireki bezain laster, 780 etorkin pasa ziren Baionako Pausa gunetik uztailan, beste 420 agorrian eta 400 irailean.

‘PAUSA’ ZENTROAN, HARRERA ETA ZAINZA GEROZ ETA GUTXIAGO

2018ko azaroan ireki zuten herritarrek eta instituzioek elkarlanean Pausa gunea, etorkinentzako harrera gunea –lo egiteko, apairu beroak jateko, garbitzeko, osasun artak jasotzeko, jantzi berriak eskuratzeko edota ondoko etapak lasaiki prestatzeko espazioa–. Oinarrian da Diakite elkarte, herriko etxeak Pausa espazioa eskaini aitzin, Baionako Eskaldunen Plazan antolatutako harrera



eta laguntza sare herritarra. 2020 urteko abenduan ordea, Pausatik ateratzeko erabakia hartu zuten elkarteko boluntarioek. “Biziki gogorra izan da erabaki hau hartzea, eta bihotza urratu atera gara Pausatik; mingarria da irudikatzea eskaintzen genituen laguntzak ez dituztela gehiago jasotzen”, dio Lutxi Bortairu Diakiteko lehendakariak.

Instituzioekin 2018ko neguan abiatu elkarlana laster gatazkatsua bilakatu zen, horren lekuko gurela gunearen kudeaketaren ardura zuen Atherbea elkarteak 2019ko azaroan Pausatik ateratzeko hartutako erabakia. Aldi honetan Diakitekoek dute lekua hustu. Pausaren kudeaketari dagokionez instituzioek eta haiek “definizio ezberdinak” ukatea, “luzaturiko eskaera guzti-guztietan errefusa jasotzea” eta “elkarritaritate eza” dituzte erabaki honen oinarrian. Adibidez, boluntarioek janaria etxean prestatu beharrean, COVID-19 garaian sukalde kolektibo bat aterpetxean instalatzea instituzioek errefusatu izanak zein Munduko Medikuen presentziari ezetza ihardetsi izanak behartu dituzte bertatik joateko erabakia hartzera. “Etorkinen harrera gune askotan dago Munduko Medikuek erakundea; guk berdina eskatzen genuen, ez zen Baionako ospitalearen zerbitzuaren konkurrentzia gisa aurkeztua, baizik eta osagai gisa: astean bi egun eta erdiz dago ospitaleko zerbitzua, guk bestelako egunetan nahi genuen Munduko Medikuek egituraren laguntza”. Erran gabe doa, bazterketa sozialaren aurkako lanetan dabilen Atherbea eta Diakite herritar militanteen sarerik gabe, giroa eta gunea aldatu dutela Lapurdiko harrera gunean.

“Igarotze-gune bezala ikusten dute gunea instituzioek; guk horrez gain harrera gune gisa ere geneukan: laguntza psikologikoa, juridikoa, ala bestelako zaintzak. Nago ez ote den ‘bazatoz, jaten duzu, lo egiten duzu eta bazoaz’ gune bilakatu”, dio Bortairuk kezkaturik. Baionako Udalaren eta Euskal Hirigune Elkargoaren esku da orain Pausa, eta bertan buru-belarri inplikaturiko boluntarioak dionaz, abenduan 30 bat etorkin ziren bertan. Orduz geroztik ez dakite.

Dituen azken berrien arabera, jendea ez da luzaz gelditzen Baionan, ahal bezain laster segitzen dute bidea: “Kanarietan zein konfinamendu garaian mugitu ezinean egon direnez, beranta handia bildu dute, eta bidaia prestatzeko denbora ukan dute; Baionara heltzearekin, aitzina segitu nahi dute, ez dute baitezpada gogorik bizpahiru egunez bertan gelditzeko”.

Hala ere, Irungo herritar mobilizatuekin harremanak atxiki dituzte, zubi-lana egiten segitzeko gisan. Dena dela, harrera eta laguntza sare eder hau ez da horretan gelditzekoa eta gerora ere hor segitzeko bide berriak gogoetatzeko dabil. Diakiteren gisara, besteak beste, Etorkinekin herritar sarea ala Cimade elkarteak ere hor dira aktibo. Elkarritaritate guztiek azpimarratzen dute herritarren inplikazioaren premia gorria. Irundik Baionara arribatu eta Ipar Euskal Herrian kokatzeko hautua egiten duten etorkinak ere badira. Hauentzako harrera bideratzen dabil Etorkinekin zein Cimade elkarteak. Hauetan dabil Juliette Bergouignan, eta dionaz iazko urtean gutxiago kokatu dira Lapurdi, Nafarroa Beherea zein Zuberoan. “Gogorra” izan da urtea, lehenik eta behin, bertan kokatzeko eta bertakoekin nahasteko auke-

rarik ia ez delako egon. Administratiboki ere “dena geroz eta gogorrago” dela dio. Prefekturan bideratzen dira paperak lortzeko prozedurak eta dionaz, “geroz eta gehiago dossier galtzen dira” bertan. “Ez da normala dosierak desagertzea... Nola desagertzen dira sortze agiriak bezalako dokumentu inportanteak? Manuak dituzte gainetik”.

Justuki, manu horiei begira ere da ezinbestekoa herritarren mobilizazioa. Etxeberririk argi du: “Europa mailan boterean direnek sekuritatea eta beldurraz aparte, ez dute besterik. Populismoaren eta eskuin muturraren haizeak ufatzen du, baina ez da baitezpada iritzia publikoa. Euskal Herrian argiki ageri da: arrakala handia dago boteregunearen eta herritarren artean, jendea prest da harrera egiteko. Gauzak aldatu daitezke, baldin eta herritarrek mobilizatzen badira”. Azken urteetan Europar Batasunaren baitan kanporaketa politika areagotuz doala dio Etxeberririk. Eurodiputatuak Itzulera Direktibaren zein Dublin Araudiaren berrikusten dabilzala, norabide txarrera doazela dio juristak: “Kanporaketak bideratzeko arauak marrazten dabilza”.

Urratsez urrats, aitzina egin beharra dute etorkinek. Baiona uzten dutenek, gauez hartu ohi dute autobusa zein tren, egunaz kontrol gehiago izanki. Baina, kontrolek hor segitzen dute, muga administratiborik ez bada ere. Bordale, Paue, Tolosa... polizia mobilizaturik da azkarki. “Behin baino gehiagotan ikusi ditugu, batzuk berriz ere Pausara etortzen... ondoko etapan kontrolatuak izanik mugara bidaiak izandakoak eta berriro etorritakoak”. Beste biderik ez dutelako: hartu behar izandako bidean, aitzina, beti. ●

“ ”

Amak esan zuenean bakarrik zegoela, ulertu nuen berriz ikasi behar nuela bengalera

Kia Abdullah idazle eta kazetaria Londresen jaioa da. Haren gurasoak Bangladeshetik joan ziren Britainia Handira. Ama zaharrarekin bengaleraz nola edo hala mintzatu da azken urteotan. Jariora galtzen ari zen. Halako batean hondamendia: birusaren ondorioz bakartuta zeudenez, amarekin telefonoz hitz egin behar eta ezin komunikatu bengalera kaskarrean, aurrez aurreko keinu eta imintzioak ezin erabili. Eta bakartze garaian, amak Kiaren ahizpa bati esan zion bakarrik sentitzen zela. Orduan garbi izan zuen Kiak zer egin behar zuen: bengalera berrikasi. *The Guardian* egunkarian idatzi du historia Kia Abdullahk 2020ko abenduan. Euskaratuta duzue kontakizuna.

 KIA ABDULLAH / THE GUARDIAN

Urte arrotz eta isolatu honetan [2020an], sylheti hizkuntzan trebatzeak nire familia ulertzeko beste modu bat eskaini dit.

Ez dut inoiz ulertu zergatik Londresko gure eskolako neskak hain harro zeuden hizkuntza bakarra zekitelako. “Ingelesa baino ez dut hitz egiten”, aitortuko zuten ahots sendoz, ohorea balitz bezala. Agian, hala, bakarrik sentitzen ziren ikasleen %90 bengalarrak ziren ikastetxean. Agian, horrek frogatzen zuen modernoak, aurrerakoiak eta asimilatuak zirela, senide migratzaileen ohitura bihurtara loturarik gabeak zirela.

Bestelako jarrera bat hartu nuen nik eta bengaleraz hitz egiteko gaitasuna ondoan eraman nuen, amuletoa bailitzan. Beste mundu bat ikusarazi zidan ezkurtuko kode zifratua izan zen. Izan ere, hizkuntza hiztegia baino zerbait gehiago

da, bestelako xehetasun ugari helarazten dizkigu: pertsona baten umorearen nolakotasuna, irain baten ziztada, baita minaren ehundura nolakoa den ere. Nire amak esan zidanean “*amar shoril ekere kulya zargi*”, ulertu nuen itzulpenik hurbileneak (nire gorputza josturatan laxatzen ari da) ez zuela jaso osasun galaraz atsekabetuta zegoen emakumearen hunkidura, zeina bere bizitzako azken urteetan zen.

Estimaten nuen nire ama hizkuntzan sartu-irtenean ibiltzeko gaitasuna, baina mintzaira azkarra da. Ez badiozu tinko eusten, erraz egiten du irrist. Gurasoen etxetik alde egin nuenetik oso gutxitan hitz egiten nuen bengaleraz. 2007an nire aita hil zenetik amarekin baino ez nuen hitz egiten.

Hurrengo hamarkadan, poliki-poliki, jariora galdu nuen. Amarekin hitz egi-

ten nuen aldi bakoitzean konturatzen nintzen gero eta gehiago behar nituela “maileguzko hitzak”. Bengalerazko hitza aurkitzen ez nuenean ingelesari eusten nion. Jakinaren gainean berak ulertuko zituela, “*bread*” eta “*hospital*” moduko hitzak erabiltzen nituen, baina gero eta gehiago behar nituen amak hain erraz ulertuko ez zituen hitzak ere: “*publish*”, “*postage*” edo “*argument*”.

Urteak egin genituen elkarriketa korapilatueta mugilduta, hitzak esamoldean eta keinuen bidez osatuta: ezpain edo eskumutur mugimenduak izango genituen lagun. 2020an, ordea, baliabide horiek gabe utzi gintuzten. Gure buruak bakartu genituela, telefonoz, hitzak baino ez genituen lagun. Eta ordurako ez neukan hitz nahikoa.

Gure berriketaldiak deserosoak eta oztopoz beteak izaten hasi ziren. Buruz



KIA ABDULLAH.COM



KIA ABDULLAH: THE GUARDIAN UTZIA

EZKERREAN KIA ABDULLAH. ESKUINEKO ARGAZKIAN EZKERRETIK HIRUGARRENA DA. BERE AMA ERDIAN DAGO ETA ALBOETAKOAK BERE BOST AHIZPAK DIRA.

nekizkien galderak egiten nizkion behin eta berriz. Elkarrizketak hutsalak ziren: Zer egin duzu gaur? Zer jan duzu? Zer egingo duzu aurki? Gero eta gutxiagotan deitzen nion, udako egun batez nire ahizpari esan zion arte bakarrik sentitzen zela. Porrot egin nuela jabetu nintzen, 2020an eta aurreko urte askoan ere bai. Zin egin nuen nire lehen hizkuntza ikasiko nuela.

Erronkarik handiena bengalaraz irakurtzeko eta entzuteko gauzak aurkitzea izan zen. Material gehiena sadhu bhasaz egoten da, hizkuntzaren bertsio formalen. Nik sylheti hizkera arrunta hitz egiten dut. Bangladeshen hamaika milioi pertsonak hitz egiten dute, Indian ere hainbat tokitan erabiltzen da eta bengalarren diasporan ere bai. Sadhu bhasatik oso desberdina da. Aditu batzuek diote hizkuntza guztiz desberdina dela. Har ezazue adibide moduan espainiera eta alderatu portugesearekin.

Duolingo plataforma erabili nahi izan nuen, baina esan zidaten ingelese-bengalera ikastarorako nahikoa jende ez zegoela. Ondoren *Italki* plataformara jo nuen. Ikasleak eta irakasleak bideo bidez harremanetan jartzen dituzte. Hogei irakasle bengalar aurkitu nituen (espainiera irakasteko berriz 1.700), baina inork ez zuen sylheti irakasten.

Irratian eta podcastetan bila ibili nintzen, eta beste behin, ez nuen ezer aurkitu sylheti hizkuntzan. *Ikasi sylheti bangla 30 egunetan* liburu elektronikoa erosi nuen, baina gaizki formateatuta zegoen eta deszifratu ezin zen edukia agertu zitzaidan. Azkenean, YouTubera jo nuen eta orduak bila egin ondoren

albiste buletinak sylheti hizkuntzan eskaintzen zituen kanal bat aurkitu nuen.

Hizkuntza umetan ikasi nuenez, oinarrizko kontzeptuak begiratzeko beharrik ez nuen, batik bat hiztegia lantzeko beharra nuen. Buletinak astean hiru aldiz entzuten hasi nintzen. Laster konturatu nintzen maileguzko hitzak erabiltzea ez zela nire kontua, hizkuntzak bereganatua zuela baizik. Adibidez, “*arrest*”, “*police*”, “*headquarters*” eta “*postmortem*” hitzak zerabiltzaten sylheti hizkuntzan ari zirenean. Ziurrenik mende bateko nagusitasun britainiarren eta hamarkadako globalizazioaren ondorioa izango da.

“ ”

**2020 arrotz eta
isolatuan hizkuntzak
nire burua ezagutzea
baino gehiago eskaini
dit, nire ama ulertu dut**

YouTubeko buletin bidez jarria berreskuratzen hasi nintzen eta aurkezlea estimatzera iritsi nintzen, halako ahalgina, zentzu handirik gabekoa, egiten ari zen! Era berean, ahizpei eskatu nien niri sylheti hizkuntzan egiteko. Denak

gizon bengalarrekin ezkondu daude eta maiztasun handiagoz erabiltzen dute hizkuntza. Zoritzarrez, emaitzak hala-nolakoak izan ziren. Ezintasunen bat izan orduko ingelesez hasten ginen.

Hala ere, nireari eutsi nion; entzun, zurgatu eta praktikatu. Hurrengo hila-beteetan hiztegia azkar puztu zitzaidan. Ahaztutako hitzak berreskuratzen nituen eta inoiz ezagutu ez nituenak ikasi nituen. Bigarren belaunaldiko migratzaile askok jarria aspaldi galdua zuten, beraz oso pozik nengoen nire jarria berreskuratzen ari nintzelako.

Nire amari sarriago deitzen hasi nintzen. Oraindik ere trabatu egiten naiz hainbat hitzetan, baina askoz argiago adierazteko gaitasuna daukat. Gaur zer egin duen, zer jan duen eta gero zer egingo duen baino gehiago galde diezaioket. Orain oharren bat egiten duenean osorik uler dezaket, adibidez “*tai ekshor fon gontor farborni*” hura esan zuenean. Irain kaustikoa bizilagun batentzako zen eta esanahia (“*ehun libera kontatzerik izango balu bezala*”) ingelesez ez da hain zorrotza. Sylheti hizkuntza berriz ikas-teari esker amaren hainbat bereizgarri ezagutu nituen. Betaurrekoek argitasuna nola, arreta gune bihurtu ziren beste gauza batzuk: bere adimen zorrotza, tartekako tristura aldiak...

Simon Van Booy idazleak idatzi zuen “hizkuntza dela seme-alabei edo maite ditugunoi utz diezaiekegun ondarerik handiena: nola sentitu zaren biltzen duen historia”. Urte arrotz eta isolatu honetan, hizkuntzak nire burua ezagutzea baino gehiago eskaini dit, nire ama ulertu dut”. ●

Leize-hartzei etxea kendu genien



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Amoroto, duela 24.000 urte baino gehiago. Leize-hartz batek bere erpearen markak utzi zituen kobazulo batean. Berriki, Ades espeolologia elkarteak kobazulo hura aurkitu du, MG-12 kodearekin katalogatu dutena. Hartzaren markaz gain, giza garezur bat ere topatu dute kobazuloan, baina oraindik ez dituzte aztertu eta datatu. Baina badakigu erpearen arrastoak 24.000-26.000 urte baino zaharragoak direla, garai hartan desagertu baitzen *Ursus spelaeus* espeziea.

Azken hamarkada arte, leize-hartzak iraungitzearen arrazoiari buruzko hipotesi nagusia klima izan da; hau da, azken glaziazioari aurre egin ez eta desagertu zirela. Baina, hainbat adituk ohartarazi bezala, leize-hartzek bizirik iraun zuten aurreko glaziazioetan. Beste hipotesi baten arabera, dieta murrizak suntsitu zuen espeziea. Baina Errumanian aurkitutako hezur batzuen azterketak leize-hartzaren dieta pentsatu baino anitzago zela frogatu zuen 2008an.

Handik bi urtera, 2010ean, Max Planck Institutua buru, nazioarteko zientzialari talde batek egin zuen azterketak klima edo elikadura baztertu eta gizakia jo zuen erruduntzat. Berriki Siberian, Ukrainan eta Galizian aurkitutako 17 arrastoren DNA mitokondrial aztertu eta leize-hartzaren gainbehera duela 50.000 urte hasi zela ondorioztatu dute, hau da, klima aldatu baino lehen. Horre-



ADES

gatik lotu dute hartz horien iraungitzea gure espeziearen hedapenarekin.

Garai hartako horma-arteak ehuza eszenatan gutxitan irudikatzean dira leize-hartzak -hartz arreak askoz ohikoagoak dira-, eta kobazuloetan giza arrastoei batera aurkitu diren hartz arrastoak erritualekin lotuta daude. Horrek guztiak adierazten du leize-hartzek garrantzi erritual handia zutela garai hartako gizakientzat, baina ez zituztela ehi-zatzen. Gizakiek ez zituzten leize-hartzak zuzenean hil, beraz. Baina hibernatzeko tokirik gabe utzi zituzten. *Homo sapiens* espeziea hedatu ahala, geroz eta kobazu-

lo gehiago okupatu zituzten bizitoki modura. Hartz arreek kobazuloetatik kanpora, landarediak babestuta, hibernatzeko gaitasuna dute, baina leize-hartzek ez. Aurrez erabiltzen zituzten kobazuloetan sartu ezinik, batzuk ez zuten negua kanpoan pasatzea lortu; beste batzuek kobazulo desegokiak, sakonegiak topatu eta ez zuten udaberrian bizirik irtetea lortu.

Amoroton aurkitutako arrastoen ikerketaren zain, azken urteetan beste hainbat kobazulotan ere aurkitu dira leize-hartzaren eta gizakien arrastoak, eta etxetik botata desagerrarazi genituela dioen hipotesi honek geroz eta indar handiagoa du. ●



Klima aldaketak Fayum hustu zuen

Basileako Unibertsitateko Sabine Huebner historialariak lehenengo aldiz alderatu ditu Egiptoko Fayum eskualdeko K.o. III. mendeko datu demografikoak eta klimatikoak, eta estuki lotuta daudela ondorioztatu du. Garai hartan lehorte izan zen Etiopian, Niloren iturburuan, eta ibaiaren emariak nabarmen

egin zuen behera. Fayum Egiptoko eskualderik emankor eta populatuena zen, baina Niloren urek behera egin zutenean, hustu egin zen. *Studies in Late Antiquity* aldizkarian argitaratutako artikuluak agerian utzi ditu berririo egungo mehatxurik handienetakoak, klima aldaketak, dituen ondorio larriak. ●

Elkarrizketak eta interrogatorioak

ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA



MIKEL BLASCO

Sisiforen paperak antzezlanaren 28an Donostiako Victoria Eugeniean. Ezin galdu euskarazko kazetaritzaren historiako pasarte beltzenetakoa trama gisa duen obra ikusteko aukera. Orri honetan lantzen dugun ARGIAren historian ere zirriborro beltza da. Zorionez, antzerkiak asmatzen du pasarte umoretsuen eta hausnarketen bidez tortura berez den dramaren putzuan ez itotzen, ikusleak aktoreei begira egingo duen bidaia emozionalean orekari eutsi ahal izateko moduan.

Harkaitz Canok idatzitako hariak josten ditu aldi berean bi mundu, taula gainean askotan momentu berean ikusiko ditugunak: kontakizuna ekintzen bidez aurrera eramaten duen epaitegi eta komisarietako mundua, batetik, eta lankideen harremanen garapena kontatzen duen egunkari baten erredakzio barruko bizitza, bestetik. Mundu horietako bakoitzak du bere hizkuntza, epaileak eta torturatzailerak gaztelaniaz mintzo baitira. Mundu horietako bakoitzak bere gaiei buruzko gogoetak eta autokritikak, ofizioei lotutako bitxikeriak... eta bi munduak tarteka lotu egingo dira: agerikoa denez, epaile eta guardia zibil horiek

erredakziora sartu eta egunkaria itxiko dutelako, eta mundu bakoitzaren gogoeak eta erreferentziak bestera iritsiko direlako. Metafora indartsurik ere bada: komisarian torturan oinarritutako interrogatorioak egiten ari diren bitartean, erredakzioan kazetaritzako elkarrizketen helburuaz arituko dira hausnarketan; hiru bider errepikatzen da joko hau, bakoitzean elkarrizketaren helburua bat dela teorizatuz: kazetariak nahi duena elkarrizketatuaren ahotan islatzea; elkarrizketatuak esan duena ahalik leialen islatzea; eta elkarrizketatuak esan nahi izan duena (baina esatera iritsi ez dena) idaztea lortzea. Estimaten da kasu zehatz batzuei beharrean, egiturazko arazoari eusten diola antzezlanak: torturan oinarritutako interrogatorioek botere banaketa omen dagoen demokrazia batean jokatzaren duten paperaz hausnartuko dute torturatzailerak eta epaileak.

Alegiazkoak dira *Alea* egunkaria eta pertsonaiak, baina errealtatean gertatu zirenen fikziozko isla ere bai eta ikuslea ezinbestean arituko da igarle lanean, nor zen nor, eta egiazko zein pasarte zegoen jolasazkoaren oinarrian. Joko horretan nahasgarri da bi denbora

**Otsaileko lehen astean
banatuko dira Argia Sariak,
egunero bana**

Badator Argia Sariak banatzeko garaia, baina aurren, pandemia dela-eta, bestelako moldez emango dira. Azken urteetan Usurbilgo Atxega jatetxean egin ohi dugu sari banaketa ekitaldia, ehundik gora lagun biltzen diren bazkari ederrean. Erakunde eta gizarteko ordezkariak, hedabideetakoak, ARGIAko kolaboratzaileak eta lan-taldea biltzen gara urtero bertan, gertutasun handiko ekitaldian. Aurren, ordea, bistan da ezin dela halakorik egin eta 32. edizioa desberdina izango da: otsailaren lehen astean, astelehenean hasi eta ostiralera bitarte, egunero sari baten berri emango dugu argia.eus webgunean 10:00etan, ordena honetan: otsailaren 1ean Ikus-entzunezko Saria, 2an Kanpaina Onenaren Saria, 3an Irratia Saria, 4an Internet Saria eta 5ean Prentsa Saria.

errealak fusionatu izana, nahiz eta obra bezala funtzionatzeko baliagarri dela ulertu: alegia, itxi zuteneko egunkarian lanean ari ziren pertsonak, elkarrizketa gaiak, garaia... bat zirela, eta atxilotu zituztenen garaia, giroa, pertsona-taldea eta funtzioak beste batzuk, egunkariaren sorrerakoa.

Egunkaria itxi zuteneko garaia ongi islatzen dute manifestazioko irudi errealek, beste egunkari bat martxan jartzeko langileen kemenak eta ekimenak, eta erredakziozko langile batek telefonoz duen elkarrizketak: "Justiziari bere bidea egiten utzi behar zaiola? Hori da zure adierazpen ofiziala? Eskerrik asko, Kultur Kontseilari jauna". Jakinik fikzioak badituela bere arauak eta dena ez dagoela taularatzetik, atxilotutako guztien erreferentzia (alegizkoa) gehitzea ekarpen handia litzateke herritarrek oraindik oso presente duen gertakizun haien oroimenerako.

Zorionak antzezlanaren taularatu duen talde handi eta osoari, hurrengo egunetan buruan oihartzunak eta gogoetak uzten dituen horietakoa baita. Hainbeste, zeren eta ia-ia kirol orriak irakurtzen hasiera animatzen baitu. ●

IZEN HANDIKO XELEBRE OSPETSUA



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

IRAKURLEAK GALDEZKA

Etxe inguruan lur-sail bat daukagu eta 750 haritz (bertakoak) landatzeko asmoa daukagu. Familiako egitasmoa da, baina ez gara ados jartzen kontu batean. Haritzak hazten laguntzeko 1,5 metroko altuera duten sareak eta 1,7 metroko makilak erabiliko ditugu. Sareak lauki erakoak dira eta ondorengo zalanza daukagu: zuhaitza eta makila sare barruan jarri eta kanpotik lotu brida batekin, edo zuhaitzek leku gehiago izateko, sare barnean zuhaitza jarri eta makila sareari kanpotik lotu. Ondo azaldu izana espero dut. Mila esker! (Ainhoa Urrengoetxea)

Neuk egin beharko banu, landarea landatu, aldamenean, sustraiak ez zauritzeko moduan hesola jarri eta hesolari josi sarea zuhaitza bakarrik barruan hartuz.

Bidali zure galdera:
bizibaratzea@bizibaratzea.eus



Paul Rochester munduko porru handienarekin. 10,7 kiloko pisua zuen.

Denertarako jendea dago. Ez da ezer berria, baina zenbaitetan gure espeziea zertarako gai den eta zertara jartzen den jakiteak farrezalea eragiten dit. Zenbait lagunek aldamenekoa eta urrunxeagokoa baino gehiago dela erakutsi arteko onik ez du. Eta gero eta muturragoko egoera xelebreak ikusten dira, jende xelebrea jendaurrean barregarri. Errekorrak dira bide txatxu horren adibide garbia: kuiarik handiena nork lortu, azenariorik luzeena nork eskuratu... Lehiaketak ere ez dira txantxetakoak. Adibidez kuia erraldoietan (*Cucurbita pepo*) erraldoiaren munduko errekorra Mathias Willemijns belgikarrarena da, Alemaniako Ludwigsburgen 2016an ospatutako Kuia Erraldioen Europako Txapelketara 1.190 kiloko alea eraman baitzuen. Errekorren Guinness Liburuaren arabera munduko azenariorik (*Daucus carota*) astunenaren marka AEBetako Minnesotako Chris Qualleyk ezarri zuen 2017ko irailean 10,17 kiloko azenario itsusi batekin. Liburu beraren arabera, sekula neurtu den azenariorik luzeena Ingalaterrako Mansfield Woodhouseko Jon Athertonek 2016an landutakoa da, "St Valery" bariatatekoa eta 14 hilabetez zaindua: 6,245 metro luzatu zen. Beste zeregin handirik ez du, nonbait, gizaseme horrek, eta ikaragarritzko erre-molatxa (*Beta vulgaris subsp. conditiva*), 7,95 metrokoa, eta pastinaka (*Pastinaca sativa*), 7,49 metrokoa, sortuak ditu. Erremolatxa astunenaren marka Ingalaterrako Gareth eta Kevin Forteyren esku dago 2019az gero: 23,995 kilo. Brokolorik (*Brassica oleracea var. italica*) handienarena zaharra da, 1993koa, eta AEBetako John Evansen esku dago: 15,87 kilo. Azalorea-

rena Ingalaterrako Peter Glazebrookena da, 2014koa, 27,48 kg. 10,74 metro luzeko artoa sortu zuen AEBetako Jason Karlek 2014an. Luzokerrarekin (*Cucumis sativus*) bi marka daude, Ingalaterran biak; luzeenarena Ian Nealerena da 107 zentimetroko batekin, eta astunenarena David Thomaena 12,89 kiloko alearekin. Baratzuri bururik (*Allium sativum*) handienaren marka ere zaharra da, 1985koa, eta AEBetatik dator, Robert Kirkpatrickek sortua eta 1,19 kiloko. Porrurik (*Allium porrum*) handiena Ingalaterrako Paul Rochesterrek zaindu eta hazitakoa da, 2018an: 10,7 kilo. Tipularik (*Allium cepa*) handiena 2014koa da, Ingalaterrako, Tony Gloverrek ondutako 8,47 kiloko burutzarra. Patatarik (*Solanum tuberosum*) handiena 2011koa eta Peter Glazebrook ingelesarena da: 4,98 kilo. Tomaterik (*Solanum lycopersicum*) handiena, berriz, AEBetatik dator, 2016koa da eta Dan Sutherlandena: 3,905 kg. Arbirik (*Brassica rapa subsp. rapa*) handiena ere lurralde haietakoa da; 2004an zaindu zuen Scott Robbek, eta 17,78 kiloko egin zen. Eki-loretan (*Helianthus annuus*), altunenaren marka Hans-Peter Schiffer alemanarena da, 8,03 metro, eta bururik handienarena Emily Martin kanadiarrarena, 82 zentimetroko diametroa.

Barazki erraldoi horiek nork nahi ditu? Gure baratzekeo ttiki goxoan aldean zakarrak izango dira. Errekorrak eta markak behar nor izateko. Bitxia da baina ia denak Ingalaterran eta AEBetan eskuratutakoak dira. Xelebre jendea han pilatzen al da? Ospetsu edo izen handiko izatetik xelebre izatera tarte txikia dago... Baratzuri ale fin batena. ●

BRASIL

NEKAZARI TXIKIAK OZTOPATZEAK GOSEA DAKARRENEAN



GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

Brasilgo nekazari txikiei haien ekoizpenak mantentzeko laguntzak emateko asmoz, 735/2020 Lege Proiektua onartu zuten udan Diputatuen Ganberak eta Senatu Federalak. Jair Bolsonaro presidenteak, ordean, betoa ezarri zien legearen xedapen ia guztiei, nekazari familiei laguntza guztiak ukatuz eta gosearen aurka egiteko aukera garrantzitsua baztertuz. Gobernuaren jarrera salatzeke eta herrialdeko egoera zein den ezagutarazteko, artikulua argitaratu du MMC Brasilgo Emakume Baserritarren mugimenduak. Michela Calaça ekin-tzaileak sinatu du idatzia, eta Bizilur elkarteak euskarara ekarri.

NEKAZARI FAMILIAK, BRASILGO ELIKADURAREN OINARRIAN

Herrialdeko etxeetan kontsumitzen diren elikagaien %70 bertako nekazari txikiek ekoiztuak dira, *Brasil de Fato* egunkariak jaso duenez. Horrela dio MMCK zabalduetako oharrean: "Lege Proiektuak ez zituen nekazarien eskaera guztiak jaso, baina nekazaritzako politika publikoak alde batera uzteagatik sortutako elikagaien krisiari aurre egiteko proposamen garrantzitsuak biltzen zituen". Diputatuen Ganberan eta Senatu Federa-



lean onartutakoak elikagaien ekoizpena bultzatu eta tokiko merkatuetan eskasia saihestu nahi zuen. "Laguntza espezifikoak eta larrialdietarakoak ematen ziztzaizkien nekazariei, beren dibertsitate osoan", azaldu dute oharrean.

Goseak herrialdea aspaldian ez bezala kolpatzen duen garaiotan, Bolsonaroaren gobernuak galarazi egiten die nekazariei haien produkzioa handitzea eta gosearen aurka egitea. "Gobernuak indigenak, quilombolak eta haien lurraldeak babes-tuak izatea eragozten du", salatu dute. Bizi duten egoera munduan zabaltzeko eta salatzeke lanean ari dira emakume baserritarren mugimenduko kideak.

GOSEA AREAGOTZEN DUEN HERIOTZA-PROIEKTUA

"COVID-19 pandemia iritsi aurretik, Brasilgo Geografia eta Estatistika Institutuak gosearen hedapen-egoera kezkarria zela adierazi zuen. 2019ko datuen arabera, 10,3 milioi pertsonak ez zuten oinarritzko elikadurarako sarbide erregularrik, eta Brasilgo familien %5 elikagaien segurtasun falta larrian zegoen. Horieta-tik erdiek baino gehiagok, emakumeak zituzten familia buru, eta herrialdeko ipar-ekialdean bizi ziren".

Koronabirusak lehenagotik zertorren egoera okertu besterik egin ez badu, argia da zein izanen den herrialdeko elikaduran hain paper garrantzitsua duen nekazaritza eredua babesik gabe uztearen emaitza. Horrela amaitzen da MMCKo kideen artikulua: "Elikadura burujabetzaren eraikuntzan etengabeko borrokan gabilitza, agroekologiaren eta emakumeon askatasunaren eta autonomiaren alde egiten. Jendar-te osoari borroka honetara batzeko dei egiten diogu. Norbaitek gosea pasatzen badu, bere beste eskubide guztiak ukatuak izan zaizkiolako da, eta argi dago goserik pasatzen ez duenak ere mehatxatuta dituela bere eskubideak". ●

Etxeko landareak Hitzaldia antolatzeke

Osasun neurriak zainduta zure herrian Jakoba Errekondoren hitzaldia antolatu nahi baduzu, idatzi:

bizibaratzea@bizibaratzea.eus



ANDONI FENÁNDEZ AZKARAI

“Garrantzitsua da ate bati ostikada ematea, eta ostean zer ateratzen den ikustea”



Bilboko DDT Banaketak banatzaile eta argitaletxe alternatiboko kide da Andoni Fernández Azkarai (Bilbo, 1983), eta etxeko uztari ekarpena egin dio berriki. Urteetako lanaren ondotik, azaroan argitaratu du *Izar Beltz Ateneoa. La historia del ateneo contada desde los locales de ensayo. 2006/2017* (Izar Beltz Ateneoa. Ateneoaren historia entsegu lokaletatik kontatua. 2006/2017) liburua. Bertan jaso du Bilboko Irala auzoan kokatutako Izar Beltz Ateneoaren historia, hastapenetatik hasi eta 2017an hustu zuten arte, eta espazio hartan gehien ezagutzen zuen tokitik egin du kontakizuna: entsegu lokaletatik.

AMAIA LEKUNBERRI ANSOLA  DANI BLANCO

Sona handia du 80ko hamarkadako Euskal Herriko punk mugimenduak. Alabaina, garai horien mitifikazioak gerizpe egin dio punkaren historiaren beste zenbait pasarteri. Zentzu horretan, liburuaren helburuetako bat zein den argi uzten duzu hitzaurrean: “Handiusteak izan gabe, gure momentua balioan jarri behar dugula uste dugu, edo behintzat hori egiten ausartuko gara. Nahikoa da garaiak mitifikatzeaz”.

Hau orainaldiko liburua da. Orriotan beste belaunaldi bat dago, gaur egungoa. Nahi nuen jendearen arreta hor jarri, orain berrogei urte egin zen horretan orde. Agian liburuan agertzen direnak ere izan ahal dira erreferenteak gazte batzuentzat, zergatik ez. Guk hainbeste miresten genituen punk taldeak ere gaz-

te batzuk ziren, alproja batzuk, gu bezala, beren ilusioekin eta bestelakoekin... inoiz ez zuten imajinatu zer eragin eta oihartzun izango zuten. Beharbada liburu honetakoak bezalaxe. Batek daki.

Zure aurreko liburuan, *Mierda de Bizkaia y sus grupos punks maqueteros* (Bizkaiko kaka eta bere punk talde maketeroak) [DDT Banaketak, Ediciones Sin Gluten, 2017], 80ko hamarkadako punk mugimenduaren parte izan arren ezkutuan geratu ziren taldeak berreskuratzea izen zenuen xede. Esan daiteke punkaren kontatu gabeko historia dokumentatzea dela zure motibazio nagusietakoa?

Bada motibazioa, sortzen dit zerbait egiteko grina. Nik 80ko hamarkadako pun-

karekin bizi izan nuen nire barne eztanda musikala, pasio hori. Alabaina, lagun artean komentatzen hasi ginen ez genituela hainbat talde ezagutzen, Cadizeko punk zale amorratu batek ezagutzen dituen Euskal Herriko talde berdinak ezagutzen ditugula. Eta hori ezin da izan. Hainbestekoa izan zen garai hartan punkaren eztanda... askoz talde gehiago egon behar ziren. Horiek bilatzeko arakatzan ibili nintzen. Oso jende gutxi idatzi du horren inguruan, eta fanzineetan aurkitu nuen informazioa. Fanzineak ziren garai haren isla hoberena edo potenteena. *Mierda de Bizkaia* bukatzen nengoenean hasi nintzen azken liburu hau egiten.

Eskutik doaz bi liburuak, beraz?

Badakizu, maketazioaren momentua oso luzea da. Materiala pasatu nion la-





gun bati, baina maketazio lanak hilabete pila iraungo zuen, eta nik jada ezin nuen ezer egin. Ezinegon, zerbait egin beharra sortu zitzaidan. Justu Izar Beltz huste arriskuan zegoen, eta esan nien hango zenbait kideri: "Aizue, hemen bizi izandako historia kontatu behar du". Zeren pena asko ematen dit ikusteak espazio bat hustean, nola desagertzen diren bat-batean espazioa eta bere historia. Aste batzuen buruan, maniak-eta egin ostean, dena ahazten da. Eta amorrua ematen dit. Kukutzan zenbat gauza egiten ziren? Ez dakigu, ezta? Alegia, guk bai askotan egoten ginelako han, baina zelan azaldu ez dakien norbaiti Kukutzan egiten ziren gauza guztiak? Ez nuen nahi Izar Beltz moduko espazio bat ere hor geratzea, ezerezean. Hortik liburua.

Zerk bultzatu zintuen proiektuari ekitera?

Benetakoa dela orriotan agertzen den jendea, autentikoa. Nik Izar Beltzen bizi izan nuena, bertan topo egin nituen pertsonak, niretzat oso autentikoak ziren, egiazko punkiak ziren. Handik kanpo ere okupatzen zuten, filosofia horrekin bizi ziren, eta nik sinisten dut euren bizia eramateko era horretan. Alegia, plastikozkoak irudituko balitzaizkit ez nukeen hortaz idatziko. Nik arnastu nuen hori guztia; Izar Beltzeko lau pareta artean bizi izan dut, liskarretan egon naiz, gozatu egin dut, mozkortu naiz, zuzenekoak eman ditut, ikusi dut nolakoa zen jendea, nolakoak kontzertuak, zelakoa zen kanpoko taldeei egiten zitzaaien harre-
ra, urtero egiten zen urteurrenean parte hartu izan dut, ikusi dut zer nolako giroa sortzen zen, eta pentsatzen nuen "ikaraga-

ria da!". Horrek nonbait jasoa egon behar zuen. Liburu hau egin nuen euroi omenaldi bat egiteko.

Izenburuak iradoki dezake Izar Beltzeko entsegu lokalen historia jasotzen dela bertan, baina berez ateneoaren historia osoaz dihardu. Zergatik erabaki zenuen hortik kontatzea?

Bi arrazoiengatik. Batetik, uste nuelako espazioaren historia kontatzeko eroale polita zela. Izan ere, hainbat talde atera ziren lokal haietatik [41 talde espazioak iraun zuen denboran], gehienak pun-karen ildotik, eta horregatik jende asko batuko zuen haria zela irudituz zitzaidan. Bestetik, ni ez nintzelako asanbladako kide, eta hargatik beste ikuspuntu bat daukat; asanblada batzuetan egon



nintzen, baina ez nintzen asanbladakoa. Izar Beltzen hamaika urteetatik, zazpi igaro nituen nik han, entsegu lokaletan, eta bertatik kontatu dut historia.

Zentzu horretan, barne-liskarra izan dut: “Nor naiz ni hau egiteko?”. Azkenean, Izar Beltzeko parte izan ziren pertsonen planteatu nien ea zer iruditzen zitzaizen entsegu lokalak abiapuntu gisa hartuta liburua egitea. Ongi iruditu zitzaizen, eta lanari ekin nion.

2006-2017 urte arteko ibilbidea jasotzen da orriotan, eta hor islatzen dituzu Izar Beltzen emandako aldaketak, musikaren alorrean zein politikoa. Zein bilakaera egon dira? Liburua bospasei kapitulutan banatu dut, eta horien bitartez ikusten da musikaren eboluzioa, eta paraleloki, asanbladarena. Izan ere, jende berria sartzen zen eta jende berri horrek musikan ere eragina zeukan. Hasieran kideak oso gazteak ziren, hogeitau urte inguru zituztela sartu ziren espazioan, eta urte horietan entzuten zena “punk iberikoa” deitu ohi dena zenez, horixe jotzen zuten. Jende helduagoa hurbildu ahala, hasierako *tupa-tupa-tupa y a la mierda* haren tokia joan ziren hartzen crust doinuak. Eta bat-batean denok crusta jotzen. Gero

“ ”

Pena asko ematen dit ikusteak espazio bat hustean, nola desagertzen diren bat-batean espazioa eta bere historia

batzuk etorri ziren d-beat delakoarekin, eta azken urteetan modernoagoak ziren taldeak agertu ziren, asanbladara arte ederrretako jende berria batu ostean; teklatuak, sintetizadoreak... aire berriak sartu zituzten. Rock n rolla ere beti egon da hor. Baina atmosfera punk hori atze-oihal gisa egon da momentuoro.

Kapitulu guztien hasieran kontatzen da, oso laburki, momentu jakin horretan asanbladaren edota ateneoaren egoera zein zen, testuinguratzeko. Politikoki, espazioan sartu zirenean bazekiten ateneo anarkista bat izan behar zela. Ildo politikoa, beraz, hasieratik zegoen oso markatuta. Hemen gaztetxe gehienak dira ildo

abertzalekoak, eta bueno, behar zenez beste gauza bat, Bilboko lehen ateneo anarkista eraiki zuten. Orduetik asanbladak auto-kritika pila egin zituen. Azken urteetan, adibidez, erabaki zen drogarik gabeko espazio bilakatzeara. Barra bota zuten. “Eta orain zelan kudeatu edo autogestionatuko dugu gure kolektiboa, baldin eta alkoholik ez badago?”. Gogoratzen dut zer nolako haserrearekin egon ziren hasieran, nahiz eta denborarekin batzuk ulertu genuen erabaki hori aurrerapauso zela, izorratzen bagintuen ere. Beganismoa izan da Izar Beltzen pisua izan zuen beste kontu bat, animalien askapenerako kolektiboak biltzen ziren bertan, Bilboko Ekintza Antiespezista (BEA) eta beste. [Datu hau kurioa suertatu daiteke kontuan hartuz gero espazioa, ateneo libertario izan aurretik, Carnes Lecanda SLren okela izozkailu handia zela].

Liburuak punkaz dihardu, eta era berean punk izaera dario. Zuk Zeuk Egizu filosofiaz egindako lana da, autogestioa eta elkarlana oinarri. Nolakoa izan da prozesua?

Liburua punk mundutik abiatu zen, eta ildo hori segi du bukaeraraino. Nik talde hauei guztiei buruz banekien zerbaite. Batzuei bu-

ruz pila bat, beste batzuei buruz gutxiago, zenbait taldetan ni egon naiz... Gehiago ala gutxiago, baina guztiekin izan dut harremana, zuzenean ikusi ditut denak, eta berengana jo nuenean egin asmo nuena azaltzeko eta galdetzeko nola ikusten zuten, jende guztia agertu zen parte hartzeko prest. Jendearen erantzunak erraztu egin du prozesua hasieratik. Gero, Izar Beltzeko asanbladatik pasa den jendea elkarrizketatu nuen, beren ikuspuntua eman ziezadaten. Behin elkarrizketak hasita, Iñigo egon da nire ondoan lanari forma emateko [liburuaren azalean ageri diren bi gangordunetako bat seinalatzen du], eta zuzenketekin ere eskua bota didate lagun batzuek. Maketazio lanak Cristina Irisarririk egin ditu. Behin lan hori burututa, lana lagun batzuen autogestionatutako Dortoka inprentara eraman genuen inprimatzera.

Argi neukan liburua DDTk atera behar zuela, baina oso estu genbiltzan diru aldetik. Hala ere nahi genuen mimos egingako liburua izatea, azal eta maketazio polita izan zezala. Kolektibo batzuegana jo genuen laguntza eske. Liburua okupazioa bultzatzeko beste era bat ere badeenez, laguntza ekonomikoa eman digute Komantxe Konpartsak [Bilboko Okupazio Mugimenduaren konpartsa] eta Anna Campbell Gune Askeak; espazio hori ere [jada hustua] Izar Beltzeko jendeak okupatu zuen... berdin jarraitzen duen jende horrek. AfterPost Kolektiboak ere lagundu gaitu ekonomikoki, baita Bilbo Vegan Edge-k ere. Eta laguntzaileen artean dago Ediciones Sin Gluten, nire zigilua. Nik ere jarri dudalako dirua, bestela ez ginen helitzen. Ez da liburuarekin dirurik poltsikoratzen ez dudala, baizik eta nik neuk jarri dudala dirua liburua argitaratzeko. Baina nik liburua atera behar nuen, esateko: "Begira, hau zuentzat da".

Oparitik ere dezente du beraz.

Bai, zeharo. Are, nik ez nuen nahi dirurik trukean, lan honengatik kobratzea azal lodia edukitzea zela iruditzen zitzaidan. Egia da ordu piloa sartzen dituzula, baina gero ikusten duzu zeinen ordu geratzen ari den, eta hori oso motibagarria da. Gainera, zeozter egiten baduzu barrutik ateratzen zaizulako, gogo horrekin, diruari garrantzirik eman gabe... nik uste horrek positiboki eragiten duela emaitzan. *Mierda de Bizkaia* egiteko ia bost urte egon nintzen, baina denborak berdin dit, lana ondo eginda egotea da inporta zaidana; ikustea urte batzuk barru eta esatea: "Ze txukuna!". Hau da nire ekarpena, Izar Beltzeko jendeari omenaldi bat.



Soinu banda ere jarri dio Fernández-ek liburuari, Izar Beltzeko talde guztien kantaren bat barnebiltzen duen diskoa baitakar. Erreproduzio-zerrendak girotzen lagundu diezaioke irakurleari.
[<https://izarbeltzliburua.bandcamp.com> helbidean ere entzungai dago]

Eskaintza hitzek irekitzen dute liburua, eta horien bidez diozu nahiko zenukeela esperantza hondarrak geratzea "inoiz molestatzeari utzi ez dioten gogo geldiezin eta desobeditzaile horietan".

Bai. Eta liburua espazio hau ezagutu ez duen jendeak irakurtzen baldin badu, nahi nioke ondoko mezua helarazi: "Zuek ere egin beste Izar Beltz bat, behar dugu eta". Garrantzitsua da ate bati ostikada ematea, eta ostean zer ateratzen den ikustea. Izar Beltzen hasiera hiru lagun artean emandako ostiko inuzentea izan zen, eta bat-batean *boom!*, hamaika urteko bizitza ederra.

Babestu babesten zaituena.

Autogestioa izan da prozesuaren motorra, eta era berean proiektu autogestionatuetara bideratu asmo dituzu liburuaren irabaziak, ezta?

Ateratzen den dirua DDTrentzat izango da, liburu gehiago ateratzeko. Horrez gain, irabaziak okupazio *marroietara* ere bideratuko dira.

Liburu hau momentu egokian kaleratu da: hedabideak okupazioaren kontrako sekulako kanpaina egiten ari diren momentu batean, gaztetxeak arriskuan dauden momentu batean; beldurgarria iruditzen zait, ordu jakin batetatik aurrera denok etxean gaudela probestuz, nola hustu dezaketen edozein espazio nahieran. Liburua bada, nolabait, modu bat ondokoa helarazteko: "Animo jende, jo beste ostiko bat, sortu beste espazio bat". Okupazioak gehitu egiten baitu soilik, ez du deus kentzen. Okupek inoiz ez dute kaleratuko inor,

gertaezina da hori. Okupak gaiztoak direla dioten horiek dira jendea etxe kaleratzen dutenak: EAJ, Polizia, banketxeak, hirian egiten dituzten makro-ekimenak...

Desalojoak ixten du liburuak historiaren kontakizuna, baina diozu historia ez dela hor bukatu.

Egia da min asko eragin zuela husteak, do-lua oso handia izan zela, eta jende askok alde egin zuen edo beste gauza batzuetara jarri zen. Dena dela, ikusten dut Izar Beltzeko jendea hor zehar. Izar Beltzeko hazia tokiz mugitu da, ez da desagertu.

Egungo herri mugimenduaren ehunean Izar Beltzen eragina dago, alegia.

Bai, eta gainera ikusten dut jende asko politizatu zela bertan. Horrek isla dauka atzetik etorri diren proiektuetan. AZET Alde Zaharreko Etxebizitza Taldea edo Langile Autodefentsa Sarea azkenaldian sortutako talde potenteenatarikoak direla iruditzen zait, eta hor ere ikusten dut Izar Beltz hein batean.

Izar Beltz hustu aurretik idazten hasitako lana da. Zer suposatzen duen desalojo hark?

Desalojoarekin agerian geratu zen Izar Beltzek zeukan babesa; Euskal Herritik bakarrik ez, Espainiako Estatutik eta Europatik ere heldu ziren oso indartsuak ziren mezuak. Bilboko kolektibo askok elkarri besotik heldu eta protesta burutu zuten, eta hori urteetan egindako lanaren eta harremanen emaitza polita izan zen. Indar asko zeukan Izar Beltzek. Bestalde han entseatzeko genuen taldeen materiala lokalean gaitu geratu zen –ateneoko beste material guztia bezala– eta denboraldi batez lagunek uzten zizkiguten instrumentuekin aritu ginen entseatzeko eta kontzertuak ematen.


Eta maila pertsonalean?

Pertsonalki, amorrua eragin zidan. Hustearekin ohartzen zara okupatzearen garrantziaz, halako proiektuen bueltan sortzen den kulturen balioaz. Niri –eta ziurrenik gehienoi–, han izandako hitzaldiek, entzundako hitzaldiek, eragin didate *klik* moduko bat nire baitan; eman digute beste ikuspuntu bat, ahalbidetu diguna agian kritikoagoak izatea, inguratzen gaituenarekin eta geure buruekin. Pertsonalki, pila bat eskertzen dut hori, nire burua askoz gehiago ireki izana. Oso eskertuta nago eraikitako harremanak eman digunaz, elkarrengandik asko ikasi baitugu. Nola ez diet liburu hau oparitutako, niretzako ikaragarria izan bada! ●



LIBURUA

Jelosia posesiboaren aurka: maitasunaz



ERLE LANGILEEN AMODIOAK

EGILEA: ALEKSANDRA KOLLONTAI

ITZULTZAILEA: AROA UHARTE

IGELA ETA EREIN, 2020

IBAI ATUTXA ORDEÑANA

Itxi begiak. Itxi begiak eta imajinatu. Imajinatu zera: gertatu, gertatzen dela proletariotzaren iraultza. Orain imajinatu, klase zapalkuntza ezabatzea helburu duen iraultza horrek ez duela genero zapalkuntza abolitzea lortu. Kosta egiten zaizu halako ezer imajinatzea? Tira, bada, lana errazteko ireki begiak eta irakurri Aleksandra Kollontai errusiar iraultzailearen *Erle Langileen Amodioak*.

Maitasun erromantikoaz, genero zapalkuntzaz eta jelsiaz idatzi nuen azken liburu iruzkina. Argitaletxeek ikusiko zuten badagoela mamia eta badaudela baita ere, irakurleak; iruzkin honetan gai horiekin jarraituko baitut. Oraingoan, Igela eta Erein argitaletxeen eskutik eta Aroa Uhartek itzulita iritsi


zaigun Kollontairen literaturaz dihardut. Errusiako iraultzaren ingurumarian kokatutako hiru fikziozko piezek osatzen dute euskarara ekarritako liburua.

Hiru lanek dihardute amodioaz. Lehenengo biek (*Amodioa hiru belau-nalditan* eta *Ahizpak*) gehiago balio dute era didaktikoan –didaktikoegian agian– autoreak nondik hitz egiten zuen ezagutzeko. Hirugarrenak, *Vasilisa Malygina* eleberri laburrak, bete-betean murgilduko gaitu genero- eta klase-zapalkuntzak, maitasun erromantiko eta erradikalak, zein jelsiak txirikordatutako lanketa literarioan.

Eleberriak bi iraultza-kideren maitasun harremanaz jardun arren, gaur egungo korapiloak topatuko ditugu:

maitasun erromantikoaren tranpak gainditzeko nahia baina ezina; horrek emakumeari dakarkion onartu gabeko lana; gizonari dakarzkion aitortu gabeko irabaziak; sexu/maitasunaren arteko bereizketa; maskulinitate hegemoniko hauskorren bortxak; jelsia mingarriaren atzean zer dagoen ezin asmatzen aritzea (bataren praktika subordinatzailea eta bestearen subordinazioaren pairamena aurkitu arte). Oihartzunak ezin iradokitzaileagoak dira.

Kollontai ausartzen da maitasun erradikalak zer izan litekeen imajinatzen. Ausartzen da klase- eta genero-zapalkuntzen zamatik askatzen, literarioki bada ere. Ausartzen da hausnartzen iraultza nola egin litekeen ezberdin. ●



MUSIKA

Tempo garratz eta kiribilduak



LEA-ARTIBAI ETA MUTRIKURKO HITZA



BRAULIO

AUTOEKOIZPENA

IKER BARANDIARAN

Izaten dira tarteka halako sorpresa atseginak eszenan. Horixe bera gertatu zait izen sobera arrunta eta ustez arrastorik uzten ez duena daukan talde honekin. Buelta erdia ematen dio bila ari garenok aspaldian aurkitzen ez dugunari. Eta hara non, proiektu berri honen errudun aspal-diko zakur zaharrak: Norman taldearen sortzaile Kepa ondarrutarra eta Alex eibartarra, makina bat taldetan ibilitako Ruben ondarrutarra lagun.

Ezagutu ez zenutenontzat Norman izan zen Eibarko Legarreko lokaletan sortutako talde rockero ireki eta ero samarra, nire ustez behintzat Dead Kennedys eta M-Ak eskizo batzuetatik gogoz edanda oso proposamen interesgarria landu zuena. Eroegia rockeroentzat eta punk eta hardcorearen zama astunegia

esperimentazioaren zaleentzat. Itzela zen taldea, ezer kaleratu aurretik finalista izan zen bai Danbaca zein Bilbo Hiria lehiaketetan. Bide propioa egin zuen, axolagabeki. Gero eta eroagoak, basatia-goak eta pertsonalagoak ziren hiru disko kaleratu ostean itzali zen zoritxarrez.

Bada, taldeko gitarra Kepak etxe inguruan talde berria sortzea erabaki zuen. Poliki-poliki kantak idatzi eta hirukotea osatu du Normanen aritutako Alex baxu-jotzaile fidelarekin (eta eroarekin) eta Ruben eskarmentudun bateriarekin. Emaizta bost kantaz osatutako EP hau, Ondarroako AME estudioan Axular Arizmendiren laguntzarekin zuzenean grabatutakoa.

Norman-en baino tempo lasaiagoak landu nahian hasi zen Kepa idazten, baina eskizo tonua ezin du alboratu. Bospa-

sei minutuko kantak dira, lehengo indarra eta abiadura motelduta, intentsitatea eta garraztasuna irabazten dutenak.

Gorputz-ek dena dauka: iluntasuna, erritmo aldaketa asko, Inoren Ero Ni-rekiko ahaidetasuna, post-rocka, barru-barruko melodia eta batez ere esentzia instrumentala. *Natura*-k ere erritmo aldaketa jostari handiak ditu, baina gai da Mike Watt upel bete batetik aterata funky-post-destroia egiteko, zeinak koro goxoentzat lekua egiten duen. *Karroña*-k bi kapitulu ditu: intentsitate eta indarra biderkatzen duen sasi jazz zikin eta kiribiltua, eta ondoren, popetik post-rock noisera igarotzeko bidezidor ustez laburra. Azkenik, *Eroa*-k dirudi nolanahi eta kostata abiadura moteldu nahi duen Norman-en sasikumea. ●



Disko baten bueltan jarrita

✍ IÑIGO BASAGUREN-DUARTE 📺 ASTRA

Bizitza gero eta gehiago mugatzen ari zaigun honetan, Mugakok zuzeneko emanaldien proposamena luzatu digu. Urte askoan Gasteizko Artium museoan egindako elektronika jaialdiak Xixonera heganein ostein, Arabako hiriburuko Jimmy Jazz aretoan saio ziklo berria proposatu digu. Gaurkoan edukiera murriztua duten emanaldietako lehenengoa dugu, eta gonbidatutako taldeak Aitor Etxebarría eta Reykjavik606 dira.

Mugako jaialdiaren jatorrizko izaera mantentzen ahalegindu dira antolatzaileak, izan ere, musika elektronikoa erdigunean jartzeko apustu zuzena hauteman daiteke. Musikaz gain, ikuslegoaren ikuspegi didaktikoa, jarrera

aurrerakoa, esperimentazioa eta jokoa uztartzea izan da festibalaren xede nagusia, eta helburu berarekin jarraitzen dutela dirudi.

Aitor Etxebarría eta haren taldeki-deak izan dira lehenak oholtzara igo-tzen. Gasteizko kaleetan hotza nabari da eta areto barruan ere sumatzen da egun osoan elur maluten hotza. Eszenatokian musikari andana dago: bateria, isats-pianoa, biolontxelo, gitarra, sinteak... Liluragarria da instrumentu akustikoen eta elektronikoen arteko nahasketa eta bateraketa.

Gernikarraren pianoak eta ahots ilunak post-rock doinuak uzten dizkigu. Nihilisem part I da bizkaitarrak sortutako azkenengo lana eta hor bildutako

KAFEA ETA GALLETAK

NOIZ: urtarrilak 5.

NON: Gernikako Astra gaztetxea.



abestiak izan dira gau-emanaldian jotakoak. Musika zinematografikoa dela esan daiteke, baina jazz eta country ukituak ere nabariak dira. Jazz musikarekin jarraituz, Donostiako Reykjavik606 taldea igo da oholtzara.

Baxua, bateria eta dj-a dira hirukote gipuzkoarra osatzen duten elementu nagusiak, hiru oinarri horiekin eta jazz ardatz giro musika sortzen dute. Borja Piñeirok eta Kino Internacionalek jazz elektronikoa ekarri dute aretora eta giro lasai eta atsegina zabaldu da entzuleen artean. Kasu honetan ez dago abeslaririk, perkusioak eta sanpleek osatzen dituzte abestiak eta erritmoa jarraitzeko grinak zeharkatzen dizu gorpuztea. ●



Puzzlea

KOKA EZAZU PIEZA BAKOITZA DAGOKION TOKIAN ETA FORO SOZIALAK, URTARRILAREN 19AN DONOSTIAN EGINDAKO PRENTSAURREKOAN PLAZARATUTAKO ADIERAZPENA IRAKURRIKO DUZU.



Sudokuak

BETE ITZAZU GELAXKAK 1ETIK 9RAKO ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3 KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

	7	6	1				9	8
				2		1		
	1				5			
		2			9			
4			6	8	7			5
			2			7		
			3				1	
		8		7				
3	4				2	5	8	

ERRAZA


4				1			2	
6							5	
			3			8		
	4		5			7		9
9	8						1	3
1		5			9		6	
		9			4			
	1							8
3			2					4

ZAILA

5x5

ZE HARRETARA ETA GOITIK BEHERA, HITZ BERA.

1. Kolpe baten onomatopeia.
2. Martxan.
3. Haur txikia.
4. Bai adberbioaren indargarria.
5. Neba.



Hizki berak

OSA ITZAZU HITZAK FALTA DIRENAK HIZKI BERAK DIRELA KONTUAN IZANIK, HORI BAI, HURRENKERA EZ DA ZERTAN BERA IZAN.

1				L	K	E	T	A
2	E				R	A	T	S
3	E	Z				E	R	A
4	E	R	R				B	E
5	E	Z	E	Z				N
6	G	A	B	O	N			

EBAZPENAK

8	3	7	1	2	5	6	9	4
5	1	4	6	9	3	2	7	8
2	6	9	7	8	4	1	3	5
1	7	5	8	3	9	4	6	2
9	8	6	2	4	7	5	1	3
3	4	2	5	6	1	7	8	9
7	9	1	3	5	2	8	4	6
2	1	4	8	9	6	5	7	3
6	2	3	4	7	8	9	5	1
4	5	8	9	1	6	3	2	7

ZAILA

PUZLEA: "BADA GARAI, EUSKAL GIZARTEA OSATZEN DUGUN PERTSONA GUZTIOK DAGOKIGUN ESKUBIDEEN JABE, GARELA BERMATZEKO: ESKUBIDE ZIBIL, POLITIKO ETA SOZIALAK".
5XS: 1. DANBA, 2. ABIAN, 3. NINIA, 4. BAIKI,
HIZKI BERAK: 1. UGALKETA, 2. EGURATS,
 3. EZAGUERA, 4. ERRUGABE, 5. EZEZAGUN,
 6. GABONGAU.

Ana Hormaetxea

GIDOIA BETETZEN



GIDOILARIA COVID-19 AROAN

“COVID-19ak ez digu asko eragin lan aldetik, idazten jarraitu dugu, baina orain pandemia ere izan behar dugu kontuan. Istorio bat sortzean, adibidez, COVID-19a egon aurreko edo agertu ondoko garaian kokatu behar dut? Maskara gabe egotea nola justifikatu? Zuzenean existituko ez balitz bezala jokatu dut? Edo istorioa sortzeko baliatuko dut? Bestalde, filmatzea orain zailagoa dela kontuan izan behar dugu. Sei edo zazpi aktoreko eszena gutxiago, bizpahiruko gehiago, jende askokorik ez... Orain arte lana izan dugula esan dut, baina aurrean hasiko da murrizten hori ere, filmaketen erritmoa geldotzearen ondorioz”.

“Ohikoa da gidoilari batek denbora luzean ezer ez fakturatzea”

Euskal Herriko Gidoigileen Elkarte Profesionaleko idazkaria da Ana Hormaetxea Ibarbengoetxea (Algorta, 1974); halaber, lau urtez, iazko irailera arte, presidentea izan da FAGAn, hau da, gaztelaniaz gain beste hizkuntza bat duten Espainiako Estatuko erkidegoetako gidoilari elkartearen federazioan. “Munduko lanbiderik onena da hau”, aldarrikatu du. Baina badago zer hobetua, elkarriketa honetan emandako erantzunek argi utzi dutenez.

UNAI BREA ARITZ LOIOLA

Fikzio gutxi idazten omen da Euskal Herrian.

Gutxi ekoizten da eta. Zinemarako apur bat gehiago, telebistarako oso gutxi. Gaur-gaurkoz ETB da telebistarako fikzioa ekoizten duen bakarra; alegia, ekoiztetxeek ETBrentzat egiten dute lan. Eta urtean bizpahiru telesail sustatzen ditu.

Bezera bakarria izateak botereaz abusatzeke aukera ematen dio ETBri?

Erabat. Argitu dezadan: aldi berean abusatzen eta bultzatu egiten du. Hark mugiarazten du industria. Baina monopolioa duen heinean, abusatzen egiten du, noski. Tarifa ez ezik, haiek ezartzen dituzte eduki motak ere, eta gai interesgarriak zeintzuk diren, telesailak zenbat iraungo duten, zenbat fikzio sortuko den...

Hortaz, ideiak autozentsuraren galbahetik pasarazten dituzu, ETBren nahiak gogoan?

Autozentsura baino gehiago, norenzatzat idazten duzun jakitea da kon-

tua. Neure ideia bat lantzen badut badakit ETBn ia merkaturik ez dardala. Urtez urte aldatzen bada ere, prozesua honelakoa izaten da gutxi gorabehera: ETBko ekoizpen arduradunek euskal ekoiztetxei deitzen diete, eta esaten diete “aurrean hiru telesail egingo ditugu, edo bi, edo... eta nahi dugu halako eta halako ezaugarriak izango dituen telesail bat, prezio honetan”. Ekoiztetxeek ideiak proposatu, eta ETBk aukeratu egiten du. Esan beharra dago, era berean, gaur egun badela ETB aprobetxatzen ari ez den beste aukera bat.

Zein?

ETBk, uneotan, ez du kolaborazio sistemarik inongo plataformarekin. TV3k, esaterako, badu akordio bat Netflix-ekin. TV3n estreinatzen den fikzio guztia gero Netflixen ere estreinatzen da, eta Netflixek dirua ematen du. Horrek, Katalunian gehiago eta hobeto ekoizteko aukera emateaz gain, ate bat zabaltzen du mundura irteteko. Eta lagundu



Ikusgaitasuna eskatzen dute gidoilariak: "Ez dugu nahi kalean jendeak gu ezagutzea, baina bai ospe profesionala".

egiten du kultur eta hizkuntz dibertsitatea sustatzen. Danimarkako telesail bat ikusten badugu hemen, zergatik ez dute Danimarkan euskal telesail bat ikusiko? Posible da, baina pentsamoldea aldatu beharra dago. Gidoigileen Elkartea aspalditik ari da hori eskatzen.

FAGako presidentea izan zinen lau urteetan gidoigileen lan baldintzak hobetzeko borrokan aritu zinen.

Borroka horrek bere horretan jarraitzen du. Lanbide hau, berez, segurtasun faltari dagokionez da prekariora. Nik oraintxe badakit ostiralera arte lana izango dudala, hortik aurrera tar-te batean ez, gero berriro zerbait... Gidoilariok badugu horrekin lotutako aldarrikapen bat, zergekin zerikusia duena. Muturreko adibide bat emango dut: baliteke hiru urte ematea gidoi bat lantzen, eta saltzean 100.000 euro jasotzea (normalean ez da hainbeste izaten, baina tira). Lehen bi urteetako bakoitzean zero fakturatu duzu, eta hirugarrenean 100.000. Kopuru handia denez, urte horretan ia %50 ordaindu beharko duzu zergetan. Baina hiru urteko lana

da! Bakoitzean 33.000 euro fakturatu bazenitu, zergak %20 ingurukoak izango ziratekeen.

Maiz gertatzen dira horrelakoak?

Telebistan gabiltzanon kasuan ez hain sarri, zinemarako idazten dutenean bai. Ohikoa da ezer ez fakturatzea urtebetean, edo denbora luzean.

Aitortza ere eskatzen duzue.

Ikusgaitasuna, zehazki. Gaur egun, telebistari esker, hobetu egin da kontua, baina lehen inoiz ez zen gidoilaria aipatzen. Frantziako aldizkariak egile-zinemaz hitz egiten hasi zirenean, zuzendaria hartzen zuten egiletzat, baina ez gidoilaria, nahiz eta askotan guk dugun lehen ideia, guk idazten dugun guztia... Zinemari dagokionez horrela jarraitzen dugu. Ez dugu nahi kalean goazela jendeak gu ezagutzea, baina bai ospe profesionala.

ETBko Go!azen telesailerako gidoiak idazten dituzu. Gaztelaniaz egiten duzu, ordea. Ez da harrigarria?

Go!azenen kasuan nik ez ditut gidoiaren xehetasunak idazten. Nik istorioak sor-

tzen dakit, eta horixe egiten dut. Beste batzuei dagokie euskara onean idaztea istorio horiek. Telesaila ikusten duten haurrei heltzen zaien euskara oso ona da, filologoez zorrotz aztertua.

Elkarrizketa batean esana: "Gaurko telebista ereduak ez du hamarkada bat baino luzeago iraungo".

Aldaketa handiak gertatzen ari dira. Fikzioaz den bezainbatean, plataformei esker gehiago dago, eta askotari-koagoa, bai edukiei eta ikusle motari dagokienez, baita kulturari eta hizkuntzari dagokienez ere. Ezin ukatu, hala ere, plataforma gutxi daudela eta haiek erabakitzen dutela zer eduki mota egin. Baina ETB baino zabalagoak dira. ETBn denak izan behar du oso leuna. Go!azen, adibidez, nerabeei buruzko telesaila da, baina umeentzako. Hor agertzen diren nerabeek ez dute porrurik erretzen, ez dute txortan egiten, ez dute alkoholik edaten... Eskuak eta musuak ematen dizkiote elkarri, baina ez dute hitz egiten kondoiez eta hilekoaz. Umeentzat da Go!azen. Eta amamentzat. ●



Txertoen zulo bat desmantelatu dute Gurutzetako Ospitalearen inguruetan



Zortzi kilo txerto eta zenbaitzuren azal lodia ezkutatzeko moduko 1.824 maskara zeuden Gurutzetako Ospitale aurreko sasi batzuen artean ezkutatuta. Bakearen Artisauek eman dute armategiaren kokapenaren berri: “Ospitaleko sarre- ra nagusitik 300 metrotarat edo bestela esanda Gurutzetako Batzokiko sarrera- tik sei metrotarat”. Diotenez, operazioa aurreikusita zutena baino lehenago egin behar izan dute publiko azken egunotan mugimendu handia atzeman dutelako

sasi horien inguruan: Bilboko trapitxe- ro ezagunak, apaizak, politikari batzuk, politikari batzuen lehengusu, osaba, eta soziedadeko lagunak, Bilkoko Ziklista El- karteko kideak, zenbait vending enpre- satako jendea, eta abar. “Ez dago gatazka luzatzeko arrazoirik. Bi aldeak –EAJ eta PNV – kontziente dira eragindako kal- teez, eta armak entregatzea erabaki dute bakearen alde”, azpimarratu dute pozik artisauek Baionara bidean autoan Amaia Zubiria topera jarrita. ●

SAREAN ARRANTZATUA

Erakundeak dio



HERRORADA

Felipe Gonzalez, Isabel II
erreginaz mozorrotuta



@ROBERSESTAO

Belar artifizialeko belardiak eraikiko dituzte Urkiolako belardietan



Donostian olatu artifizialeko surf park bat eraikitzeko ideia berritzaileak kitzi- katurik, Urkiolako santutegi inguruko belardietan belar artifizialeko belardi estaliak eraikiko dituztela jakinarazi dute Abadiñoako Udalak eta Bizkaiko Di- putazioak. “Mendira doazen pertonek aukera izan dezaten urte osoko egun guztietan txangoak lasai antolatze- ko, eguraldiaren menpe egon gabe”, Joxepor Landa ingurumen diputatuak jakinara-

zi duenez. Eliza aurreko harri koxkorra kendu eta haren lekuan zementu blo- ke bat jartzeko asmoa ere agertu dute, “Euzkadiren irmotasuna” hobe islatzen duelakoan. Edozer gauzaz xixtran ari- tzeko joera duten ekologisten kexen au- rrean, diputatua argi mintzatu da: “In- gurumenarentzat kaltegarria? Askoz ere kaltegarriagoa litzateke parajeotan 17 etxebizitza-bloke eta bi kirol-portu erai- kiko bagenitu!”. ●

Artikulu hauek erosita
ekarpen ekonomikoa
egingo diozu

**Bilboko Mbolo Moye
Doole** elkarteari.

Atera aldarria kalera
euskaraz eta wolofez!

24€



Eskaerak egiteko:

943 37 15 45
argia.eus/azoka

Jakoba Errekondoren liburu berria

Etxeko landareak



Liburu honek hobeto zaintzeko gakoak emango dizkigu: zein landare aukeratu txoko bakoitzerako, gaixotasunei nola aurre egin, landare bakoitza nola ureztatu, ongarri naturalak nola egin, haziz doan ahala nola birlandatu... maite dugun landare hori nola ugaltu ere ikasiko dugu. Zaintzen asmatzeko beharrezkoena, lore bakoitza ezagutzea da. Liburu honetan deskubrituko dituzu bakoitzaren jatorria, beharrak eta gustuak. Bizitzaren ederra loratu dadila!



25€

Orri kop.: 248

EROSTEKO

argia.eus/azoka
9433 7 15 45

ARGIA
www.argia.eus

BIZI BARATZEA
www.bizibaratzea.eus